

ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko urriaren 8a > Astelehena > III. urtea > 161. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Edozeinek izan dezake buruko gaitzen bat une jakin baten"

Monica Etxabarri
Agifes > 08



G2a

Maritxu Kajoik bedekintutako gaupasa > 23-24

EUSKARA

Emunek jardunaldia antolatu du biharko, Arantzazun > 07

KIROLA

Eskubaloian Ford Mugarrik 32-15 hartu zuen mendean Bergara > 18

ARETXABALETA

Anbulatorioko langileek leku falta salatzen dute gaurko egoitzan > 15



IBILBIDEA Zirkuituko guneetan pilatu zen, batik bat, jendea, baina ibilbidean ere asko ibili ziren; Ibargarai kalea jendez lepo izan zen ia uneoro.

JOSETXO ARANZABAL

JAIA > KILOMETROAK BERGARAN

Jende uholdea, antolaketa bikaina eta eguraldi ederra ikastolen aldeko jaian

OMENALDIA Ikastolako gurasoak omendu zituzten, eta Patxi Azkargortak aipamen berezia jaso zuen

GUNEAK Labegarrietako eta Artabilako guneek izan zuten arrakasta handiena, baina guztietan jende asko ibili zen

LEKUKOA Datorren urtean, Irurako ikastola arduratuko da Kilometroak jaiaren antolakuntzaz > 02-05

AURKIBIDEA

Debagoiena > 06-07
Elkarrizketa > 08
Iritzia > 09-10
Herriak > 09-14
Kirola > 17-22
Kultura > 23-27
Saillatuak > 29
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

POLITIKA > BATASUNEKO KIDEEN ATXILOKETAK

Ibarreko ordezkari gehienek atxilotetak salatu dituzte

Debagoieneko alderdi politiko gehientsuek zein Kilometroetara Bergarara etorritako Miren Azkaratek (Eusko Jaurlaritzan) eta Marije Fullaondok (EHAK) Batasuneko 23 kideen atxilotetaren balorazio txarra egin dute, eta gehienek ere motibazio politikoa iritzi die.

Edizio hau ixterako orduan, Mikel Zubimendi bergararra, debagoiendar bakarra, atxilotuta zegoen, eta Baltasar Garzon epaileak baldintzagabeko kartzela zigorra erabaki zuen 17 atxiloturendako; gainerako lau fidantzapeko askatasun erregimenean utzi zituen, eta bi, aske. > 06

Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan auto honentzako: Focus Coupe Trend 1.6 100 ZP. Prever Plana, BEZA, garraioa, sustapeneko deskontua eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Eskaintza hau ez da balagarria langile eta flotentzat. TIN: %0. Finantzatze gaitzaren prezioa: 8.000 €. FCE Bank Plc-k eskaintzeko finantzetan; Espainiako sukurtsala, Ford España SLK druz lagundutako interesak. Eskaintza balagarria umiaren 31 arte. FEBE zenbakia: 07/35705. Kontsumoa: 4,7-9,3 l/km. CO2 emisioak: 125-224 g/km. kusten den modeloa ez da eskaintzen dena

Irabaztea zer den sentitu
Orain, Focus 12.900 €-tik aurrera

Aire girotua, ABS, CD-irratia eta barruko ordenagailua eta gainera
%0 ko UTB
24hilabeterako finantzetan 8.000€ arte.



MUGARRI AUTOAK Feel the difference
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE





ZINTA-MOZTEA Nerea ugarte eta Julen Herran zintari eusten, eta Maria Pilar Umerez mozten, sarrera ekitaldian.

JOSETXO ARANZABAL

JAIA > KILOMETROAK BERGARAN

Eguraldia eta giro ona, Kilometroei argi eginez

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Agintari politikoak, elkarteetako ordezkariak, ikastoletako guraso, langile zein irakasleak, herritarrak eta kanpotik etortitakoak Seminarioko patiora gerturatu ahala, Bergarako Musika Bandaren *Alkate Soinua*-ren doinuek egin zioten argi Kilometroak jaiaren hasierako ekitaldiari. Uxue Rodriguezen ahotsak lagun, Edu Muruamendiarazek oinak dantzan ipini zituen, bertaratu-takoei agurra eskainiz.

Unai Azkarate Kilometroetako ordezkariak hartu zuen hitza eta, hurrenez hurren, Agurte Barruso alkateak, Angel Mari Eguren Aranzadi Ikastolako presidentek eta Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak berba egin zuten gero.

IPUINA ETA ZINTA MOZKETA

Uxue Agirre Aranzadiko ikaslearen ahotsean ipuin bat entzuteko aukera izan zen gero: ikastolaren oinarri diren familiak gogoran hartuta, ipuin xumea kontatu zuen. Gero, txalaparta soinuek lagundu zituen zinta dantzari.

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko presidente Arantxa Manteolaren eta ahaldun nagusi Markel Olanoren berbaldien ondoren etorri zen zinta-moztea. Ikastolako familien ordezkari Ugarte-Umerez sendiko Julen Herran, Nerea Ugarte eta Maria Pilar Umerez moztu zuten. Agintari, kultura eta gizarte elkarteetako ordezkari eta herritarrek ibilbidea hasi zuten orduan.

IBILBIDEAK, ARRAKASTA

Ibilbideari irekiera ofiziala eman ostean, milaka eta milaka euskaltzale ibili ziren zirkuituan barrena. Zirkuitua oso ondo antolatuta zegoela azpimarratu zuen jende askok: zerbitzuguneak ondo kokatuta, ibilaldi lau, urbano eta eroso... Hala ere, izan da kexatu denik, tarte batean aldapa "nahiko gogorra" zegoelako, nahiz eta oso tarte txikia izan.

Ibilbidean barrena, adin guztietako jende asko: aitajaun-amandre, guraso eta seme-alabak; zaharrak, helduak, gazteak eta txikiak.

Horiendako guztiendako, ekitaldi aukera zabala izan zen, eta saio guztiak iragarritako orduan eta arazorik gabe izan ziren.

Antolatzaileen esanetan, Anje Duhalderen emanaldiak, Pantxoa eta Peioarenak, Kautarenak, Txan

Magoarenak, Betizuenak... ikusmin handia sortu zuten. Baina, beste guztietan ere jende asko batu zen, taldearen arabera adin batekoak edo besteak erakarriz. Arratsaldean, Kilometroetako abestia eta, bide batez, Belceblussen kontzertua entzutera eta kantua bera abestera, jende asko gerturatu zen Aranzadiko gunera. Aurtengo abestia bazter askotan entzun da, eta umeek zein helduek buruz ikasi dutela erakutsi zuten kantuan eta dantzan: asmatu dute, beraz, antolatzaileek.

LABEGARAIETA ETA ARTABILA

Labegaraietako eta Artabilako guneek izan zuten harrera azpimarratu zuten antolatzaileek, baina beste guztietan ere egun osoan barrena ibili zen jendea.

Artabilan, esaterako, ez zuten uste hainbeste jende egongo zenik, baina lehenengo orduan errefortzuak behar izan zituzten hango jendeari erantzuteko. Arratsaldean, Labegaraietako egon zen jendez lepo. Bakoitzairen gustuen eta asmoen arabera aukeratu zituen jendeak guneak.

JAN ETA EDAN

Aranzadiko jangelan, espero baino ehun lagun gehiago bazkaritan

Jateko eta edateko nahi adina aukera izan ziren domekan zirkuituan barrena: txosnetako ogitartekoak, batetik, edo propio gertatutako jangeletako menuak, bestetik. Hiru menu izan ziren aukeran: Aranzadiko zutabe patioan, patatak errioxar erara, solomoa piperrekin, postrea eta edatekoa. Aurreikusita zegoen 250 lagunek bazkalduko zutela bertan, baina, han lanean jardun zutenen arabera, 350etik gora bazkaltiar izan zituzten. Sagardotegiko menua frontoian jateko, 500 lagunendako tokia zegoen, eta ordu bietarako, ehunek bazkaria jana zuten; ondoren, 400era iritsiko zirela uste dute. Labegaraietako jangelan ere bi menu izan aukeran.

Ogitarteko aukera ere zabala izan zen, baina bestelako jatekoak dastatu ahal izan zituzten ibilbidean barrena gosetutakoek: besteak beste, taloak zein labeldun okela pintxoak. Usondoko gunean, Eusko Labelek jaten eman zuen eta, besteak beste, sukaldari eta zerbitzari lanetan ikusi genuen Kalitatea Fundazioko gerente German Muruamendiaraz.

Jatekoak edana behar du lagun, eta edariak, noski, edalontzietan. Azpimarratzekoa da 150.000 edalontzi berrerabilgarri banatu zirela, etaj ende askok bat egin zuela ingurumena zaintzeko eta zabor gutxiago sortzeko ekimenarekin. Horrek lagundu du Bergara garbiago egiten.



AGURRA Uxue Rodriguez eta Edu Muruamendiarez.

JOSETXO ARANZABAL



TXOSNAK Jan eta edan bila, txosnetan jende pila.

JOSETXO ARANZABAL

ARAZORIK EZ

Antolaketak oso ondo baloratu zuen Bergaran izandako jende uholdearen jarrera, zainketa lanean zebiltzan antolaketa-koei eta oharrei kasu egin zirelako. Gainera, egunean barrena ez zen aparteko arazorik izan; hortaz, hori izan zen seinalerik onena. Arratsalde partean, osasun zerbitzuek zein Ertzaintzak ez zuten abisurik jaso ezer larria gertatu zela esanez.

Bestalde, antolatzaileek eskertu nahi izan zuten egun osoan

zehar lanean jardun zuten boluntarioen lana, eurek egin zutelako posible, neurri handi baten, arazorik ez egotea.

Amaitu zen jaia, itzali zen bonbila, baina gaur oraindik lanean dabil jende pila. Kilometro kilometro eta pausoz pauso, lanean eta elkarlanean jarraitzeko bideari eutsi behar diete orain Aranzadi-koei eta ikastoleetakoek.

Argi daukagu, espero bezala, dena ondo joan dela domekan, eta antolatzaileak ere oso pozik daudela argi da.

Unai Azkarate > Kilometroetako koordinatzailea

"Domekako eguraldi ona herritarrek urte osoan egindako lanaren saritzat har daiteke"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Urte osoko lanaren ostean, egun handia igarota, Kilometroen gaineko balorazio positiboa egin zigun koordinatzaileak. Jende uholdea, eguraldi ederra, antolaketa bikaina eta aparteko gorabeherarik eza azpimarratu zituzten.

Aurrez esperotako emaitzak lortu dituzue?

Dena bikain atera dela esan genezake: jendearen parte-hartzea eta jarera, ekitaldiak, antolaketa... Oso-oso pozik gaude. Milaka eta milaka euskaltzaleren bilgune bihurtu da gaur Bergara. Zaila da zenbaitza, baina 80.000 inguru izan dira. Esperotakoa bete den denborak esango du, baina dena irten den bezala irtetea, dena ondo joatea, eguraldia lagun izatea, txosnetan jendea buru-belarri lanean ibiltzea... hori guztia arrakasta da.

Joan den asteko eguraldia ikusita, sekulako zortea izan duzue, ezta?

Eguraldi ona herritarrek urte osoan egindako lanaren sari modura har genezake. Izan ere, gerta zitekeen guztiz alderantzizkoa.

Trafikoari dagokionez, kontuan hartuta gure ibarrera iristeko zailtasunak izan daitezkeela, zer moduz joan da eguna?

Ondo joan dela esan dezakegu. Aparteko trafiko arazorik ez da sortu: autoz etorri zirendako aparkaleku ia den-denak bete egin dira. Autobusei dagokionez, goizeko lehen orduan zerbitzuan gorabehera txiki batzuk sortu ziren, batez ere Arrasate, Soraluze eta Zumarraga aldetik zetozenekin, baina denbora tarte txikian jende asko, denak batera, hurbildu zirelako izan zen. Gorabehera horiek berehala konpondu ziren, Pesak zerbitzua gehiago indartu zuelako, autobus gehiago jarritz. Antzuolatik, esaterako, izan ziren oinez etorri zirenak hori dela eta.



GOIENKARIA

Lortutako emaitza ekonomikoez berba egiteko goiz da beharbada, ezta?

Bai, diru kontuez berba egiteko moduan ez gaude oraindik, baina ekonomia batzordekoek lan handia izan dute egunean barrena, bai sarretan, baita txartelak saltzeko postuetan ere. Hortaz, emaitza onak aurreikus daitezkeela dirudi.

Nola bizi izan duzu jaia barrutik?

Goizeko protokoloan, emozioa sentitu nuen; ikusi nuen eguna ondo zetorrela. Ibilbidea egin dugu gero, eta omenaldia ere hunkigarria izan da. Bazkalostean, ikusi dut jendea

gozatzen eguraldiarekin, egunarekin berarekin, eta horrek, niri ere, beste modu batera izan bazen ere, gozatzeko nahikoa arrazoi eman zidan. Sufrimendua eta plazera bizi izan nituen une berean.

Eta gaurtik aurrera, zer?

Dena jasotzea dagokigu, herria Kilometroak baino lehen zegoenetan uztea, alegia. Ondoren, balorazio zehatzagoak egiteko ordua izango da, eta gure asmoa da Gabon aurrerako txosten bat gertatzea, datorren urtean Kilometroak antolatuko duen Iru-rako ikastolako emateko.

AGINTARIEN HITZETAN



Miren Azkarate
Eusko Jaurilaritzako bozeramailea

"Odola amaren eta aitaren aldetik Bergarako dudala kontuan hartuta, esanahi berezia du Kilometroak Bergaran izatea. Gustura etortzen naiz, ikastolei laguntzeaz gain, lagunak ikusteko, eta erakusteko prest gaudela euskararen alde egiteko. Hala ere, hobe joango ginatete urtean zehar euskara gehiago erabiliko bagenu".



Tontxu Campos
Hezkuntza sailburua

"Horrelako egunetan, euskara bihurtzen da komunikazio tresna. Baina euskarak iraungo badu, egunero erabili behar da; bestela, aparteko bihurtzen dugu. Bergaran denok batuta euskaraz jarduten badugu, ahalbidetuko dugu bihar, etzi eta etzidamu euskarak kalean, ikastetxeetan zein lantegietan bizirautea".



Agurne Barruso
Bergarako alkatea

"Ikastolen mugimendua garrantzitsua da nazioartean, eta izango da Euskal Herriaren nazio bateratzean. Bergara bera ere erreferentziako herria da, hainbat alorrean, eta etorkizunean ere hala izatea espero dut. Izan dadila Bergara kalitatezko hezkuntza euskaldunaren aldarriaren lekuko; horretarako, lanean segi behar da".



Angel Mari Eguren
Aranzadiko presidentea

"Ikastolak herri proiektua izan gara; horretan jarraitzen dugu gaur egun ere, eta horregatik antolatu dugu, nahi zuten herritarrekin, herriarendako jaia. Gure ikasle batek esan bezala, 'guztiok ematen diogu euskal jai honi bere gatz eta piper puntua', eta zuen gatzik gabe, jakina, jai honek ez luke zaporerik izango".



Markel Olano
Gipuzkoako aldun nagusia

"Ikastolan hazi eta hezitakoa naiz, eta Beasaingo lehenengo Kilometroak jaian hartu nuen parte. Bi gauza azpimarratuko nituzke Kilometroetatik eta ikastolen mugimendutik: gurasoen, irakasleen zein ikasleen konpromisoa, batetik; eta eguneroko lan isilean dihardutenei egin beharreko errekonozimendua, bestetik".

OMENALDIA > IKASTOLAKO GURASOEI

Aranzadiren ibilbide luzean guraso guztiek egindako lana eskertu zuten

Aranzadiren aurrekari izan zen ikastolako ikasle Patxi Azkargortak aipamen berezia jaso zuen

Datorren urtean Kilometroak antolatuko dituen Irurako ikastolako lekukoa hartu zuten

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Udalbatzarren aretoa jendez lepo beteta zegoela ekin zioten Kilometroak jaiko bigarren ekitaldi nagusiari: omenaldiari, hain zuzen ere.

Monika Belastegik jardun zuen aurkezle lanetan eta, ekitaldia hasi bezain laster, jende artean Mikel Laskurain aktore bergararra altxatu eta bakarrikzketara umoretsua eskaini zuen. Honako galdera egin zuten Kilometroaren antolatzaileei: "Zergatik, Kilometroak diren lekuan direla, diren urtean direla, beti esaten duten 100.000 lagun izan direla?" Jendearen barre algarak eragin zituen Laskurainek.

PRESIDENTEAK ETA EMAZTEAK

Laskurainen umorezko beste ateraldi baten ostean, hariari heldu eta gurasoek egindako omenaldia ekin zioten: "Aranzadik omen nahi ditu guraso guztiak, ez soilik karguren bat izan dutenak, baizik eta ezkutuan lan egin dutenak, etxetik babesa eskaini dutenak... azken baten, umeak Aranzadi ikastolara eramateko eraba-



OMENDUAK Ezkerrean, gurasoen ordezkariak; goian, Patxi Azkargorta, lehen ikastolako ikaslea; behean, Irurako ikastolakoak, lekukoa jasotzen.

JOSETXO ARANZABAL

kia hartu dutenak. Horrekin erakutsi dute Aranzadi ikastolaren proiektuan sinetsi dutela", azaldu zuen Monika Belastegik.

Gurasoen ordezkari Aranzadiko lehenengo eta egungo presidente Felix Altunak eta Angel Mari Egurenak eta euren emazte Itziar Gabilondok eta Mila Alonsok lore sorta eta oroigarriak jaso zituzten. Felix Altunak ikastolaren sorreran laguntza handia eman zuten Serafin Esnola abadea izan zuen gogoan:

"Lokalak utzi ez ezik, babesa ere eman zizun. Baimenik ez geneukan arren, ardura bere gain hartu zuen. Irakasleek ere ez zeukaten titulurik. Orduan, zaila zen sinestea gaur egungo egoerara iritsiko ginela, baina heldu gara eta, hainbestean, gustura".

GERRA AURREAN IKASTOLAN

Aranzadi ikastola 1971n sortu arren, gerra aurrean izan zuen aurrekaririk, eta eskola hartan ikasle izan zen Patxi Azkargortak

ere aipamen berezia jaso zuen ekitaldian; Azpeitira joan zen gero bizi izatera, eta hango ikastolaren sorreran ere hartu zuen parte. Hunkituta kontatu zituen garai hartako kontuak: "1930ean, ikastola zegoen Bergaran. Ia bost urtez jardun genuen, Francoren tropak sartu eta plazatzora gauza guztiak atera eta erre zituzten arte. 12 urte nituen eta negar egin nuen. Gure irakaslea Maria Alejandra Oianguren zen, emakume langilea eta maitagarria".

DATORREN URTEAN, IRURAN

Omenaldien ostean, lekuko aldatzea egin zuten. Hau da, datorren urtean Kilometroak jaia antolatuko duen Irurako ikastolako presidente Sorkunde Irazuk eta zuzendari Josune Aiestaranek Aranzadiko presidente Angel Mari Egurenen eta zuzendari Patricia Urrutiaren eskutik jaso zuten lekukoa. Irurakoek Bergarakoen harrera eta laguntza eskertu zuten, eta baita, bide batez, Irurarako gonbitea egin ere.

KILOMETROETARA TXOKO GUZTITATIK



Nerea, Itziar, Mireia eta Nora
Azpeitia

Urte batzuetan huts egin ostean, etxetik gertu zeukatela-eta, Bergarara etorri ziren bisitan Azpeitiko neskak, eta iritsi berritan egon ginen eurekin. "Autoz etorri gara, eta oraindik galduta gabilta. Lehenengo tripa ondo beteko dugu eta, gero, bueltatxo bat eman zirkuituan. Ez gara kontzertuzaleak, hortaz, giroaz gozatuko dugu".



Ane eta Mikel
Areatza eta Atxondo

Autoz etorri zen bikotea Bergarara, eta ibilbidea egiteko asmoa zuten gurekin izan zirenean. "Eguraldi ona sumatu dugu, baita giroa ere, eta nahikoa jende dabil". Berrerabiltzeko edalontziak erosi zituzten, eta ahalik eta azkarren bete nahi zituzten. Giroaz gozatzeaz gain, Anek Bergara ezagutzeko ere aprobetxatu zuen eguna.



Iñigo
Elgoibar

Mendiz etorri zen Elgoibartik 35 lagunekin. Bost ordutik gorako ibilaldiaren ostean, zalantza zuen Kilometroetako ibilbidea egin ala ez. "Lehenengo bazkaldu egingo dut, eta gero gerokoak". Bergaran jaso zuten hasierako inpresioa ona izan zen: "Gune bakarra ikusi dugu, baina ondo prestatuta dagoela dirudi, eta giroa ere ona da".



Pepi
Orereta

Kilometroetara ez ezik, Nafarroa Oinezera, Herri Urratsera... joateko ohitura du. Ibilbidea egin ondoren, kritikaxo bat egiteko aprobetxatu zuen aukera: "Musika oso gogorra da, eta jende helduarendako ez hain egokia. Gainontzean, giro oso ona aurkitu dugu. Ezagutzen dugu Bergara, baina jaiaren parte hartzea zen helburua".



JAIMA GUNEA Besteak beste, jolasean ibili ziren jaimen barruan.

JOSETXO ARANZABAL



ZIBURUAK Espoloiko ziburuak, umeen gozagarri.

JOSETXO ARANZABAL



'GOIENKARIA' Zenbaki berezia banatu zuten sarreretan.

JOSETXO ARANZABAL



LABELA Santa Marinaran, labeldun okela.

JOSETXO ARANZABAL



LABEGARAIETA Kiroldegia, gazteen bilgunea.

JOSETXO ARANZABAL



TALOAK Jateko hamaika aukera izan zen.

JOSETXO ARANZABAL



PAILAZOAK Ume mordo, ikastolan pailazokerien zain.

JOSETXO ARANZABAL

BOLUNTARIOAK: ZUK JAI ETA NIK LAN



Garbiketa

Edalontzi berrereabilgarriak banatu arren, zikinkeria mordo pilatzen da guneeetan zein ibilbidean barrena. Erratza eta palarekin, batzuk, eta pintzekin paperak eta hondakinak batuz, beste batzuk herria ahalik eta garbien gordetzen ahalegindu ziren. Hala ere, gaueko hamarretatik gaur goizeko hamarretara arte, Cespako langileek garbiketa lanetan jardun dute.



Arropa salmenta

Arropa guztia salgai ipini eta Kilometroak jaiaren egunean dena agortzea izaten da salmenta arduradunen nahia edo ametsa. Gauza asko saldu ziren, noski, baina oraindik bada materialik. Hortaz, datozen egunetan ere, denda irekita egongo da, oraindik ezer erosi ez dutenendako edo, oroigarri modura, egun horretako kamiseta, jertsea, praka... nahi dituztenendako.



Mantenimendua

Horrelako jaien ostean, kaleetan txiza usaina izaten da, nahiz eta batetik bestera eraman daitezkeen komunak ipintzen dituzten. Ibargarai kalean, gainera, barruan hainbat komun zituen kamioi bat ere ipini zuten. Horiek txukun mantentzeaz ere norbait arduratu behar izaten da, eta, besteak beste, garbitu edo paperik badagoen begiratzen dute.



Zirkulazioa

Aparteko trafiko arazorik ez zen sortu, eta hori, neurri handi batean, autoei zein autobusei nondik nora joan azaltzen ibili ziren boluntarioei esker izan zen. Jende asko autobusez ibili arren, autoz etorri zirendako gertatutako aparkalekuak ia goraino bete ziren. Bestalde, arratsaldean ez zen arazorik sortu, ez sarreretan eta ez eta irteeretan ere.

POLITIKA > BATASUNAREN AURKAKO POLIZIA OPERAZIOA

Alderdi ia guztiek iritzi txarra agertu dute atxilotetekiko

Batasuneko kideen atxilotetak normalkuntzara bidean atzerapausoa dira, ordezkari gehienentzat

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko ordezkari politiko gehienak bat datoz irizten egubakoitz goizaldean Batasuneko 23 kideren -tardean, Mikel Zubimendi bergararraren- atxilotetak txarrerako direla.

IBARREKOEN IRITZIAK

Hala, EAE-ANVko Angel Bergaretxek esan zuen atxilotetak direla "PSOEn apustua gerraren eta mendekuaren alde, bakea alde batera utzita". Oñatiko alkate EAJko Lurdes Idoiagaren esanetan, atxilotetak "normalkuntzara bidean oztopoa" dira. Aralar-ko Oxel Erostarbek esan zuenez, "neurri ikaragarria da, sentsibilitate politikoaren aurkakoa". Ezker Batuko Ander Rodriguezen hitzetan, "Zapaterok elkarriketaren alde egin zuen hauteskunde arrazoiengatik, eta bide politziala hartu du orain arrazoi berberengatik". EAKo Pello Urizarrek, bestetik, onartu zuen "hemendik eta martxora arte, Espainiako Gobernuak ez duela aukera larregirik emango".

PPko Itziar Lamarainek esan zuen "ados" dagoela atxilotetekin, baina Zapaterok "botoak lortu" nahi zuela horien bidez. PSEk ez zuen baloraziorik egin nahi izan.

"LEHENGO GARAIETARA"

Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramailea Bergaran izan zen, Kilometroetan, eta hau esan zuen: "ETAren atentatu ahalginek lehengo garaietara garamatzate, eta horri erantzuteko, mehatxua, polizia eta hitz egin

gabe ezezkoa erabili dira, lehengo garaikoak ere", eta honakoa gaineratu zuen: "Ze Zuzenbide Estatu da orain hilabete gutxira arte orain atxilotu dituztenak solaskide hartu zituena?"

Ezker abertzaleko kide Marije Fullaondo ere Bergaran izan zen, eta hitz hauek izan zituen: "Espainiako Gobernuak independentziari ateak itxi eta Espainiako Konstituzioa eta errepresioa erabiliko dituela erakutsi du".

AGERRALDIAK

Kalean ere igarri dira erreakzioak. Hala, egubakoitzean bertan, Arrasaten, Maritxu Kajoi ospa-



PROTESTA Hainbat kale agerraldi egin dira atxilotetak salatzeke; argazkian Bergaran atzo egindakoa.

JOSETXO ARANZABAL

tzeko batu ziren ehunka lagunek manifestazioa egin zuten, *Hau ez da demokrazia, atxilotuak askatu!* leloarekin, eta ospakizunean bertan ere atxilotuak askatzeko aldarrikapenak egon ziren. Aipatzekeak dira ere Bergaran, Zubi-

mendiren herrian, egubakoitz iluntzean eta atzo, Kilometroen aitzakian, egindako agerraldiak.

'KANTO'-REN ALDE

Bergarako beste atxilotu baten aldeko mobilizazioak ere deitu

ditu Debagoieneko Askatasunak: Luis Mari Azkargorta *Kanto* gaur, astelehena, zen betetzekoa bere zigorra, baina luzatu egin diote. Horregatik, bilkura egingo dute gaur Fagor guztietan, eta agerraldia eguenean Bergaran.

ESANAK

"Ze Zuzenbide Estatu da orain gutxira arte solaskidetzat zituen berberak orain atxilotu egiten dituen?"

Miren Azkarate > Eusko Jaurlaritzak

"Neurri ikaragarria da, sentsibilitate politikoaren aurkako neurria, judizialki zein polizialki, eta ez dio herri honi laguntzen"

Oxel Erostarbe > Aralar

"PSOEek gerraren eta mendekuaren aldeko apustua egin du, bakea alde batera utzita, eta ez dakigu non bukatuko den"

Angel Bergaretxe > EAE-ANV

"Iraganeko dinamikara eramaten gaitu; lasaitasuna behar da, baina, martxora arte, aukera gutxi izango da"

Pello Urizar > Eusko Alkartasuna

"Horrelako ekintzak ez dira onak, duda barik; oztopoa dira herri honek merezi duen normalizazio bidean"

Lurdes Idoiaga > EAJ

"Batasuna legez kanpo dagoenez, ados nago atxilotetekin, baina argi dago Zapaterok botoak lortzeko ekintza dela"

Itziar Lamarain > PP

"Zapaterok polizia bidea aukeratu du orain hauteskunde arrazoiengatik, lehen elkarriketa aukeratu zuen moduan"

Ander Rodriguez > Ezker Batua

"Euskal Herria gataska konpontzeko markoa gertatzen ari zenean, Espainiak independentziari ateak itxi dizkio"

Marije Fullaondo > Ezker abertzalea



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

EUSKARA > JARDUNALDIA

Emunek hizkuntza jardunaldia antolatu du biharko

Lana euskalduntzeko Arrasateko Emun kooperatiba 10 urte ospatzen dabil, eta biharko ekitaldia horren barruan dago

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Bihar, martitzena, izango da Emun lana euskalduntzeko kooperatibak antolatu duen Motibazioa eta Hizkuntza Normalizazioa delako jardunaldia. Arantzazun izango da, Gandiaga Topagunean, eta lekua beteta egongo da, izan ere, 200 lagunek baino gehiagok eman dute parte hartzeko izena. Euskal Herriko, Kanadako eta Valentziako adituek egingo dute berba gai haren inguruan.

Emun 10. urteurrena ospatzen dabil, eta horren barruan antolatu dute ekintza hori.

HITZALDIAK ETA MINTEGIAK

Jardunaldia 09:00etan hasiko da, eta Emuneko presidente Ima Elexpuruk, HUHEZIKo dekanok Nekane Arratibelek eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren koordinazio zuzendari Erramun Osak egingo dute berba.

Lehenengo hizlaria Peter MacIntyre izango da. Kanadako Cape Breton unibertsitateko kide horrek Komunikatzeko gogoak hizkuntza erabiltzeko motibazioaren dinamika hitzaldia egingo du. Gero, Ferran Suay Valentziako Psikologia Elkarteko kideak eta Emuneko Joxpi Irastortzak egingo dute hitzaldi bana. Bazkalostean, lau mintegi izango dira: *Komunikatzeko gogoak ulertzen eta garatzen* (Peter MacIntyre), *Euskaltzaleendako asertibitateak* (Ferran Suay), *Buruntzaldeko esperientzia: emozioen ekologiarren bidetik* (Alex Mungia eta Xabier Elortza, HABE) eta *Erdal-*

dunak euskarara nola erakarri: ba al dakigu zirrikituak irekitzen? (Iñaki Eizmendi, EBETE).

Bostetan, mintegien emaitzak aurkeztuko dituzte, eta horrela bukatuko dira jardunaldiok.

Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Arrasateko Udalaren, Eroskiren, Euskadiko Kutzaren, Fagorren eta Ulmaren laguntzarekin antolatu da ekintza hori.

EKITALDI NAGUSIA, 24AN

Emunek urteurren borobila ospatzen jarraituko du urriaren 24an, eguaztena: egun horretan, Arrasateko Amaia antzokian, urteurrenko ekitaldi nagusia egingo dute, *Elkarrekin bidea egiten...* izenekoa. Besteak beste, kooperatiba horren 10. urteurrena dela eta egin duten ikus-entzunezkoa ikusi ahal izango da. 16:30ean, Emun eta lan mundua euskalduntzearen inguruko erakusketa izango da.

Jardunaldiko egitaraua

08:30 Harrera eta material banaketa.
09:00 Agurra eta aurkezpena.
09:00 Peter MacIntyre, Cape Breton University (Kanada) Komunikatzeko gogoak: hizkuntza erabiltzeko motibazioaren dinamika.
10:30 Kafea.
11:00 Ferran Suay, Societat Valenciana de Psicologia: Pertsonarteko hizkuntza erabilera gainerako esku hartzea.
12:00 Joxpi Irastortza, Emun: Enpresetako euskara planetako langileen jarrera, portaera eta motibazioa.


12:00 Bazkaria.
15:00 Mintegiak.
A: Peter MacIntyre: Komunikatzeko gogoak ulertzen eta garatzen.
B: Ferran Suay: Euskaltzaleentzako asertibitateak.
C: Alex Mungia eta Xabier Elortza (HABE): Buruntzaldeko esperientzia: emozioen ekologiarren bidetik.
D: Iñaki Eizmendi (EBETE) Erdaldunak euskarara nola erakarri: ba al dakigu zirrikituak irekitzen?
17:00 Mintegiaren emaitzen aurkezpena.
17:30 Jardunaldiaren amaiera.



JOSETXO ARANZABAL

Bigarren ikasturtean, 3.000 ikasle nahi ditu Baketik zentroak

Baketik bake zentroak bigarren ikasturtea inauguratu zuen herenegun, zapatua, Arantzazuko Gandiaga Topagunean, Baketiken egoitzan, alegia. Ikasturterako aukeratu duten leloa *Hobeto bizitzeko, zeurekin eta besteekin* izan da. Ekitaldian, besteak beste, Jonan Fernandez Baketikeko zuzendariak ikasturterako lan irizpideak aurkeztu zituen. Hala, datorren martxora bitartean, 13 ikastaro egingo dituzte, eta 3.000 ikasle izatera iristea da ikasturte berrirako helburuetako bat.



IKASLEAK Amarens de Jong eta Kira Evve GOITBko platoon.

GOIENKARIA

HEZKUNTZA > HUHEZI

Goienaz bideoa egingo dute Erasmuseko bi ikaslek

Herbehereetako eta Estoniako Komunikazio-Kazetaritza bi ikaslek Goiena bisitatu dute

L.K. > ESKORIATZA

Erasmus proiektuaren bidez HUHEZIn dabilen bi ikasle Goienako egoitzak bisitatu izan dira egunotan, eta, euren praktiken barruan, bideo bat egingo dute Goiena Komunikazio Zerbitzuen inguruan. Amarens de Jong eta Kira Evve dira ikasle horiek, Herbehereetako Windesheim Unibertsitatekoa eta Estoniako Tallin Uniber-

tsitatekoa, hurrenez hurren. Biak Komunikazio-Kazetaritza ikasleak dira.

IKASLE GEHIAGO 15EAN

Beste hiru ikasle europar ere badaude HUHEZIn, eta hilaren 15ean hasiko dira beste lau: Stephanie Valkenburg, Liesbeth Van Moll, Kathleen Jansen eta Tara Thoonen, Flan-desko Irakasle ikasleak.

Unea aukeratzea, denbora aurrezte da.

Francis Bacon



Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. Zatoz Bastida Sukaldeak-era.

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. 8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:

azpeitia 943 150 510
zarautz 943 894 999
bergara 943 767 058

www.bastidasukaldeak.com

bastidasukaldeak

Etzi, urriaren 10ean, Nazioarteko Buruko Osasunaren eguna ospatuko da. Horren harira, zapatuan, hainbat ekitaldi egin zituzten Donostian, tartean, Agifes elkarteak. Gurean, Berberlan dauka egoitza Agifesez. Bertan lanean ari diren guztiak boluntarioak dira, eta taldela- na egiten dute; tartean dabil Monica Etxabari ere. Harekin berba egin dugu.

Monica Etxabari > Agifes elkartearen kidea

"Edozeinek izan dezake buruko gaixotasun bat bizitzako une batean"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Monica Etxabarrik Heziketa Berezik irakasle ikasketak egin ditu; gainera, Buru Gaixotasun Larria dutenen Birgaipen Psikosozialerako eta Asistentzia Osorako Espezializazioa ere egin du. Orain, Gizarte Lan ikasketak amaitzen ari da Etxabari. Debagoieneko Agifes elkartearen dabil boluntario lanetan.

Buruko gaitzak baztertuta daudela diozue. Zer dela eta diozue hori?

Nahiz eta buruko gaixotasunek gizarteko zati handi bati eragiten dieten, oraindik ere nahiko ezezagunak dira. Gaixotasun horien inguruan zenbait aurreiritzi daude; buru gaixotasuna beti zoroekin erlazionatu izan da, psikopatekin edo antzerako irudiekin, eta hori, oraindik ere hedabideetan ikusi egiten da; buru gaixotasunaz hitz egiten denean, beti berri txar bat emateko izaten da, eta horrek, informazioa faltarekin batera, bazterkeria sortarazten du.

Bestalde, orain dela gutxi arte, jendeak uste zuen buru gaixotasuna familiaren eraginez, drogen ondorioz edo bizitza desorekatu baten ondorioz sortzen zela. Oraindik ere pentsaera hori bada, eta horregatik, familia askok ez dute laguntza eskatzen; beldur dira jendeak zer pentsatuko duen.

Zerk eragindakoak dira buruko gaitzak?

Jatorria oraindik ez da oso zehatza, baina argi dago hainbat faktorek eragiten dutela; alde batetik, badago gaixotasuna edukitzeko sentsibilitatea. Hau da, gaixotasuna izateko probabilitateak handiagoak izango dira familian gaixoren bat baldin badago. Faktore neurologikoek ere eragin handia daukate, baina iker-tzaileek oraindik ezin dute zehazki esan burmuinean non kokatzen den. Faktore psikosozialek ere eragiten dute; agian, lehen aipatutako sentiberatasun hori badauka norbaitek baina, ingurunea egokia bada eta bizimodua ere bai, posible da inoiz ez agertzea gaixotasuna. Baita alderantziz ere. Baina, betiere probabilitateaz ari gara; edozeinek izan dezake buruko gaixotasunen bat bere bizitzako une batean.

Osasun arloan, baliabideak falta ei dira.

Bai, horrela da. Gure bailaran, adibidez, Arrasaten ditugu baliabide gehienak: Buruko Osasun Zentroa dago, Eguneko Zen-



Monica Etxabari, Agifes elkartearen bulegoan.

GOIENKARIA

troa eta Aita Menni eta San Juan de Dios Hospitaleak. Hala ere, eta elkartearen kideen arabera, itxaron zerrenda handiak daude, ospitalean gero eta ohe gutxiago dago, profesionalen errotazio tasa handia da, eta gizarte mailan ia ez dago inolako errekurtsorik.

Bazterketa sozialak oraindik badirau, ezta?

Bai; jendeak uste du buru gaixotasuna daukaten pertsonak arriskutsuak direla, baina hau ez da horrela. Adibidez, lana topatzea oso zail izaten dute gaixoeak, beste biztanleek daukaten eskubideak askotan ukatu egiten zaizkie eta, beste askotan, mesprezua jasan behar izaten dute.

Zenbati eragiten diete buruko gaitzek?

Osasunerako Munduko Elkartearen datuen arabera, biztanleriaren %1-2ri eragiten dio. Euskadin, aldiz, 2006. urtean 24.000 pertsonari egin zitzaizkien harrera Osakidetzan. Arlo pribatuko datuak ez dakizkigu, eta ezta ere arreta barik dauden pertsonen kopurua, baina gure esperientziak esaten digu asko direla. Urtero kasu berri asko agertzen dira; aipatutako kopuruari, aurretik buru gaixotasuna zeukatenak batu behar zaizkie.

Gogoratu behar dugu, buru gaixotasunen barruan, eskizofrenia, psikosia, depresioa, antsietatea, neurosia, anorexia... eta beste zenbait sartzen direla, eta denok dakigu horrelako gaixotasunak oso ugariak direla. Askotan ez dugu jakiten gaixotasun horiek buru gaixotasunak direla. Batzuk bizitzako momentu zehatz batean azaleratzen dira. Beste batzuk kronifikatu egiten dira.

PLANGINTZA

"Buru osasuna hobetzeko planak hiru urteko atzerapena dauka"

ZAINTZAILEAK

"Zaintzaileek hartzen duten ardura oso handia da, eta horrek, askotan, antsietatea eragiten du"

Plangintza bat badago buruko gaitzen gainean, baina salatu duzue plan hori ez dela garatu. Zertan datza plan hori?

Planak euskaldunon buru osasuna hobetzea dauka helburu, baina, dagoeneko, hiru urteko atzerapena darama, beraz, gure senitartekoaren egoerak berdin jarraituko du luzerako.

Desinstituzionalizazioa hasi zenetik, oheak ixten joan dira, buruko gaixotasuna daukaten pertsonak gizarteratzeko asmoz, baina errealitatea ez da hori. Egia da oheak kendu egin dituztela, baina, horren ordez, ez dituzte errekurtsio berriak sortu, eta hori da plan horretan hartutako konpromisoetariko bat; zainpeko etxebizitzak eratzea, erresidentzia txikiak sortzea, eguneko zentro gehiago edukitzea eta buruko gaixotasuna daukatenek bizitza ahalik eta normalena egiteko beharrezkoak diren zerbitzuak sortzea.

Herri guztietan ez dago buruko osasun zentrorik. Horrek zein oztopo eragiten ditu?

Gure bailaran, bakarrik Arrasaten dago buru osasun zentroa, eta, lanez gainezka daudenez, ezin dute beharrezkoa den zerbitzua eskaini. Horrez gain, Arrasateraino joatea askotan oztopo

bat bihurtzen da. Horrek egoera larriago egiten du, eta krisiak saihestea zailago egiten da.

Zerbitzuei dagokionez, Arrasaten Eguneko Zentro bat dago, baina ez da nahikoa. Udalen laguntza jasotzen dugu, baina, proiektu gehiago aurrera eramatea neketsua da, eta denbora eskaini behar zaio; eta, boluntarioak garestuak hartuta, askotan denbora falta zaigu.

Sarritan, seme-alabek zaintzaile papera bete behar dute.

Bai, askotan buru gaixotasuna daukaten pertsonen seme-alabek zaintzaile lanetan ibili behar izaten dira: medikazioa ematen, kontrola egiten eta, askotan, etxeko ardura haur edo gazte hauen gainean gelditzen dira. Gazte hauek hartzen duten ardura oso altua da eta, askotan, estresa eta antsietatea edukitzen dute, euren eta familia osoaren egoera zailduz. Hori saihestu daiteke gizarte zerbitzu minimo batzuk ezarriz; adibidez, etxeko laguntza.

Eta gaixoak haur eta gazteak direnean?

Helduen buruko gaixotasuna nahiko ezezaguna da, eta are gehiago haurrena; ondorioz, askotan beste zenbait diagnostikoekin nahasten da.

Gipuzkoako ospitaleetan badaude zenbait unitate haur eta gazteen krisiei aurre egiteko, baina beharrezkoak izaten diren Zentro Pedagogiko-Terapeutiko zerbitzurik ez dago kasu askotan. Ikastetxeekin koordinazioa ere oso inportantea izango litzateke.

Agifesez zein zerbitzu eskaintzen du?

Debagoieneko Agifes sortu zenean, orain dela bost urte, Bergaran ia ez zeuden soziorik; gaur egun, 60 baino gehiago gara. Guretzat, hori lortzea oso garrantzitsua izan da, eta gure asmoa aurrerantzean zerbitzu gehiago sortzea da; izan ere, gure ustez, eskaintzen duguna gutxi da oraindik. Hamabostean behin, Laguntza Taldea egoten da. Arreta zerbitzua ere badaukagu. Beharrezkoa denean, Donostiatik etortzen dira gurera profesionalak, laguntzeko edo informatzeko.

Zerbitzu gehiago lortzeko asmoz astero elkartzen gara, eta, sentsibilizazio ekintzak antolatzeaz gain, dirulaguntzak eskatu, bidegabekeriak salatu, beste elkarte eta instituzioekin harremanetan egon eta beste hainbat gauza egiten ditugu.

oharrak eta deialdiak

OÑATI

> 1967an jaiotakoek afa- ria egingo dute

Urriaren 27an egingo dute, Aretxabaleko Basterralde jatetxean. Izena emateko jo Luis eta Ongi tabernetara edo Sesiñena ilepaindegira, urriaren 17a baino lehen. 20 euro aurreratu behar dira. Beste aukera bat da diru hori honako kontu zenbakian sartzea: 3035 0005 3 4 005.1024507.

ARRASATE

> 1956an jaiotakoek baz- karia egingo dute

Azaroaren 17an egingo dute, batzokian. Joan nahi duenak 50 euro sartu beharko ditu Euskadiko Kutxako honako zenbakian: 3035 0001 5 1 001.08006.2 (izen-abizenak zehaztea komeni da). Izenematea bukatuko da urriaren 27an.

BERGARA

> 1962an jaiotakoek afa- ria egingo dute

Urriaren 27an egingo dute, Tartufon. Izenematea hilaren 21era arte da. Horretarako jo Ariznoa eta Etxagi tabernetara. Joan-etorriko autobusa egongo da.

ARRASATE

> 1967an jaiotakoek afa- ria egingo dute

Azaroaren 10ean egingo dute afa-ria, Arteaga jatetxean. Izena emateko deitu 943 79 65 56 zenbakira edo Portaloira Optikatik pasatu (Mirari).

BERGARA

> 1958an jaiotakoek afa- ria egingo dute

Hilaren 20an egingo dute, Sirimiri jatetxean, 21:30ean. Izenematea Sirimirin egin beharko da, 30 euroren truke.

BERGARA

> Borondatezko lanaren gaineko ikastaroa

Luhar taldeak eman-
go du, hilaren 15etik 19ra, 17:00-19:00 ordutegian, eta boluntario izan nahi dutenei zuzenduta dago. Izena emateko deitu 663 0572 23 zenbakira.

ARRASATE

> Etorrin, ostalarietamer- katoriendakoeskolak Udal Euskaltegian

Aisa deitzen da 16 ur-
tetik gorako etorkinen ikastaroa eta euskara ikasteko lehen urratsak emango dituzte. Ostalarien kasuan, zerbitzua euskaraz emateko lehen urratsak emango dituzte ikastaroan. Merkatariendako ikastaroaren ka-

suan, helburua da bezerokiko komunikazioa euskaraz egin ahal izateko tresnak ematea. Hiru ikastaroak dira 60 ordukoa. Izenematea zabalik dago, Udal Euskaltegian.

DEBAGOIENA

> Nomina eta aseguru sozialengaineko ikasta- roa Topagunearekin

Urriaren 24an eta 31n izango da, Bilbon. 50 euro balio du. Izena emateko deitu 944 75 16 18 zenbakira edo idatzi prestakuntza@topagunea.com helbidera, hilaren 19a baino lehen.

OÑATI

> Txantxiku Ikastolako ikasle ohien eguneko baz- karirako txartelak

Bazkarirako txarte-
lak salgai jarri dituzte urriaren 12ra arte. Prezioa da 18 euro eta eskura daitezke Txantxiku Ikastolan eta Izarraitz, Ona, Luis, Aker, Aloña Mendi eta Otamendi tabernetan.

ARAMAIO

> Urriaren izango da dina- mizatzailea KZgunean

Urriaren 15ean eta 29an egongo da, 16:00-18:00 ordutegian. Bestalde, dinamizatzailerik gabe bada ere, egunero nabigatzeko aukera dago, 17:00-19:30.

ARRASATE

> 1943an jaiotako emaku- meen bazkaria

Urriaren 27an izan-
go da, batzokian. Izena emateko 20 euro aurreratu behar dira Murua-
mendiaraz gozotegian.

ARRASATE

> Txatxilipurdik lan eskaintza egin du

Ludoteka eta gazte txokoetarako dinamizatzaileak behar ditu. Arrasateko ludotekan eta gazte txokoetan lau orduko kontratuko lana eskaintzen du; eta Aretxabalea, Eskoriatza eta Antzuolako gazteleketan aste bukaerako lana. Informazio gehiago: 943 79 54 46.

DEBAGOIENA

> Nafarroa Oinezera joa- teko autobusa

Urriaren 21ean ospa-
tuko da, Vianan. Hara joateko autobusak antolatuko ditu Debaguneko. 08:30ean Bergaratik abiatuko da eta Oñati, Arrasate eta Aretxabaletan geratuko da. Txartelak hilaren 17ra arte egongo dira salgai. Prezioa da 8 euro bazkideentzat, eta 10 euro, gainerakoentzako.

etxeke leihotik



Oihane Agirre > GOITBko programazio zuzendaria

Digitalizazioaren aja Euskal Telebistan

Leihor berri bat ireki du ETBk: digitalizazioaren leihoa. Bilbon eraiki dute egoitza berria, eta bilbotarrek duten famari jarraituz, handikiro promozionatu dute aldaketa. Zergatik ez aitortu! Inbidia apur bat ere sentitu dut. Askok gustatu zaizkit dekoratu berriak; aurreko dekoratu birtualak alde batera utzi dituzte. Egoitza bera ere oso modernoa omen da; joan zen astean entzun nion ETBko kazetari bati esaten bizikletak jarri beharko dituztela erre-dakzioan alde batetik bestera ibiltzeko. Honek ere sekulako inbidia ematen dit!

Baina aldaketetara moldatu beharra izaten da, eta horrek beti dakar arazoren bat edo beste. Emisioan izandako akatsen aurrean, aurkezleek nahikoa lan izan dute! Aurkene Iturriotz biraoka entzun nuen. Informatiboetako eta kiroletako hainbat aurkezle lotsatuta ikusi ditut kameran aurrean, zer esan ez zekitela. Aurkezleen lan horrek ez dit inbidiarik ematen!

Gustura egingo nituzke neuk ere akats horiek, egoitza aldaketaren eta digitalizazioaren ondorioz egindakoak izango balira!

**> Euskararekin jolas ere egin daitekeela erakutsi digute Mihiluze saiokoek. Gidoigile bikainen lana ikus daiteke eguneroko-
ro. Bikote bikaina osatzen dute Kikek eta Ilazkik.**

**> Izarren liga iragar-tzen duen azken iragar-
kia ikusi duzue Euskal Telebistan? Perretxiko-
tan doaz jokariak, eta sari nagusia zein, eta itzelezko onddoa!
Aurtengoan, Realak ezin irabazi!**

"Aldaketetara moldatu beharra izaten da, eta horrek beti dakar arazoren bat"

ARRASATE

> Urriaren azaroan Biztanle- en Arreta Zerbitzuan egin ahal izango da nortasun agiria

Urriaren 30ean eta azaroaren 6an eta 28an egin ahal izango da, hain justu ere. Hori horrela, interesatuek txanda hartu beharko dute BAZen bertan. Txanda hartzeko epea urriaren 28an zabalduko dutela jakinarazi dute. Bestalde, BAZeko arduradunek ohartarazi dute han egingo duten agiria ez dela elektronikoa.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

debagoiendarrak kanpoan

Jesus Amezaga > Arrasate

"Txinan oso jende gutxi egiten du berba ingelesez; hizkuntza muga da"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Pekinen bizi da, azken hiru urte eta erdian, Jesus Amezaga arrasatearra. Urtean hiru edo lau aldiz etor-
tzen da Arrasatera, Pekinen jai denean. Oraingo bisita aprobetxatuz, Maritxu Kajoi eguna lagunartean pasa du herrian.

Nolatan joan zinen Txinara?

Fagor Automatioko lana dela eta, Asian denboraldiak igaroz hamar urte daramatzat. Orain dela hiru urte eta erdi, Pekinera joan nintzen bizi izatera.

Ohitu zara horko bizimodura?

Europarekin alderatuta, oso ezberdina da. Hasieran, pixka bat kosta zitzaidan Txinako pentsamolde eta kultura berezia ulertzea, baina, pixkanaka, moldatu naiz bizimodura.

Hizkuntza ez ezik, jatekoa ere ezberdina da.

Jatekoa asko gustatzen zait; ez da hemengo jatetxe txinartarretakoa modukoa. Hizkuntza, ordea, muga da. Txinan, oso gutxi berba egiten dute ingelesez, eta komunikatzea ez da erraza. Saiatzen gara txinera ikasten. Gramatika sinplea da, baina ahoskera, zaila. Eguneroko gauzetarako moldatzeko adina ikasi dut.

Hemengo jendearekin harremanari eusten diozu?

Bai; Txinara lanera edo bidaian joaten direnekin. Enpresakoekin, telefonoz zein e-postaz komunikatzen naiz, eta familia eta lagunekin ere hitz egiten dut. Arrasatera natorrenean, gustura egoten naiz, eta lagunek eta etxe-koek ere gustura hartzen naute.



IKER BARANDIARAN

Lanera Txinara joan zen

Fagor Automatioko lana dela eta, hamar urtez Asian barrena ibili da; gaur egun, Pekinen bizi da.

Zeren falta sumatzen duzu?

Txinan, giroa ezberdina da. Familia eta lankideen arteko harremanak dituzte, batik bat. Ez dago lagun edo koardila girorik; poteorako edo koadriari bat egiteko ez dira elkartzten. Lagun giro horren falta sumatzen dut.

Zein bizimodu egiten duzu?

Aste barruan, lana. Bidaia asko egiten ditut, lana dela eta. Hortaz, asteburua aprobetxatzen dut bestelako gauzetarako: trago batzuk hartu lagunekin... Beti aurkitzen dut jende euskalduna. Orain, Pekinen, sei euskaldun daude, unibertsitatean ikasten.

Aldaketarik ikusi duzu herrian?

Askorik ez. Txinan, gauzak oso azkar mugitzen dira; Arrasateko aldaketak, ordea, motelago-

ak dira. Erritmo azkarreko dinamikan sartuta gaude Txinan, eta denbora konturatu barik pasatzen zaigu. Hortaz, Arrasatera bueltatutakoan, iruditzen zait gauzak lehengoan daudela.

Itzuliko zara Arrasatera?

Bai. Noiz, ez dakit, baina bueltatuko naiz. Ez zait axola denboraldi luzeago bat Txinan pasatzea, baina betiere Arrasate buruan dudala.

Bisitarietara zer gomendatuko zenieke?

Pekinen, tenpluak, harresia... Shanghai ere hiri polita da. Nik Guilingo mendi eta erreka ere gustuko ditut. Gainera, erosketak egiteko leku aproposa da Txina, gauzak merke daudelako; baita jatetxeak ere.

kale inkesta

Onddo sasoian gauden honetan, baduzu perretxikotara joateko ohiturarik?



Maialen Orbegozo
Langilea
Bergara

Ez ditut perretxikoak ezagutzen, hortaz, ez naiz bila joaten; baina, jateko orduan, asko gustatzen zaizkit. Lagunen batek ondokoak batu eta afaltzera gonbidatzen banau, duda barik, joango naiz jatera.



Sara Puerto
Etxekoandrea
Bergara

Hirikoa naiz, eta mendira apenas joaten naiz; inoiz norbaiti lagundu izan diot perretxiko bila, baina ez naiz aditua. Jateko, gustuko dut perretxiko-nahaskia, baina supermerkatuan erosten ditut.



Jose Ramon Azpeitia
Langilea
Bergara

Bai, noizean behin, bai. Aurten ere, joan naiz, baina gutxi batu ditut. Ezagutzen ditut perretxikoak, baina baten batekin zalantza izanez gero, ez hartzea hobe. Ondoren, elkartean jaten ditugu lagunekin.



Luis Eraña
Langilea
Bergara

Bai zalea naiz. Aurten, birritan joan naiz, eta batzuk jaso ditut. Hemen jaten ditugunak ezagutzen ditut. Etxean eta lagunartean jaten ditugu, baina, jan baino gehiago, banatu egiten ditut inguruko artean.

zorroztailea



Markos Balentziaga

Burujabe

"Biktimen dozena bat elkartek bilkura palkoetatik jarraitzeko gonbitari uko egin zioten: tartean, AVT, Ermuko Foroa, Valentzia, Extremadura eta Galiziako elkar-teen eta Estatuko Segurtasun indarretako biktimek (...). Atxilotetak salatzeke, Ezker Abertzalea taldeak parte hartzeari uko egin zion."



Berria > 2007-10-06

Gaur, astelehena, Bergara eta ingurutzua onera etorten dira, poliki-poliki, kilometroz eta kilometroz osatutako astegun buruzuri eta astegoen zoro samarren ondoren.

Zer urrun ikusten dan, gaur-biharretatik begiratuta, joan dan egubakoitzeko biktimen gañeko Gasteizko Parlamentuko Osoko Bileria. Noizbait egin zaneke itxuria hartzen dotsagu... Noizbait, 2003tik egiteko zain egon dana! Eta zetako? Biktima batzuk baño ez aittatzeko! Nori beria bada legia, emon zor jakuena biktimei... biktima guztiei, jakiña. Baña herri dontsu honetan alde bakar batekuak aittatzeko zeguan eta dago prisia. Minberia gertatzen da, itxura danez, GALen, BVEren eta enparauen ez egittekuen aittamena.

Egubakoitz goizian bertan hedabide guztiek jasotzen zebe Segurako polizia-operaziñuak be eragin dau jardunik. Operaziño horrek ez dau ekarten gogora lehenago be egin dan bestelakorik? Momentu politikua, eragin mediatikua, beti-betiko juez fama-min eta fama-gose diranen izenak tartian... Ez zan halatsu izan Euskaldunon Egunkaria-ren itxieria, berbarako?

Fernandez de la Vega España-ko Gobernuako presidenteordiak esan dau juezak "burujabe" dirala euren lanian. "Burujabe"... ala buruiritzi? Europako Parlamentuak frankismua kondenau zebanetik, nora begira dare Garzon, Grande-Marlaska edo Del Olmo -Egunkaria ixteko agindua emon zebana- epaille "burujabiok" Manolo Fraga edo Roberto Garcia-Calvo, esaterako, -gobernadore zibil falangista izan eta orain Epaitegi Konstituzionalian epaille dana-Entzutegi Nazionalera eruan eta han galderak egiteko?

Ollar gandorjabez betetako Entzutegi Nazionalian beti dago bat ez bada bestia kukurruku jo eta burua tente erakusteko amorratzen. Zeñek zarata haundixagua egin erronkan dihardutela emoten dabe.

"Herri dontsu honetan alde bakar batekuak aittatzeko dago prisia"

"Fernandez de la Vega dio juezak 'burujabe' dirala... ala buruiritzi?"

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Eskerrik asko Kilometroen antolatzaileei

Arrasateko lagun talde batek Kilometroen antolatzaileak zoriondu gura ditu lerro hauen bidez: "Eskerrik asko Aranzadi ikastolako ei eta jaialdia antolatzen ibili diren guztioi. Primeran pasatu genuen: zirkuitua asko gustatu zitzaigun, herri barrua ere oso ondo zegoen, eta guneetan ere giro bikaina egon zen. Musika eskaintza nabarmendu gura dugu, oso bariatua eta kalitatezkoa zelako. Azkenik, bereziki eskerrak ematen dizkiegu txosnetan zebiltzane, oso lanpetuta ibili arren, primeran atenditu gintuztelako. Zorionak!"

OÑATI

> Kilometroetara joateko autobusen gainean

Oñatiar bat Olakuako autobus geltokira joan zen domeka goizean, Kilometroetara joateko asmoz, eta abenturaxoa ere bizi izan zuen. Hauxe kontatzen digu: "Ordutegiaren arabera, 09:15ean zen, baina 09:30ean, han ez zegoen autobusik. Azkenean, postetxeko geltokira joan behar izan nuen presaka. Autobusa 09:45 pasatxo agertu zen, eta ezin izan ginen irekiera ekitaldirako garaiz heldu. Gainera, gero arrasatear batzuek esan zidaten eurek 11:15ean hartu zutela, baina jendea 10:15etik zegoela zain! Hortaz, alde bate-tik, txalotzekoa da autobusa ipintzeko Pesak egin duen ahalegi-na, baina, bestetik, antolakuntza, informazio eta koordinazio falta handia igarri genuen. Garraio publikoa puntual eta formal ez badabil, ez du ezertarako balio".

usteak uste

Irati Agirreazaldegia

Txiza usaina edonon da baina

Jai giroa nagusi, eta tabernetan, ilara luzeak medio, Komuneko aterik ezin ikusi. Barrura sartzea lortuz gero, itxura, duda barik, itsusi.

Edan ondoren zerbeza, maskuriaren kexa. Larri egon arren, komunerako bidea ez da erraza; eta libre egon dadin... erreza.

Txiza egiteko orduan, abantailak; horretan ere abilak, noski, edozein izkinatan paretaren kontra parrastada botatzen aurkituko ditugu mutilak.

Txizaz beteta edozein kale izkina, eta taberna baten komunera sartu arren, seguru, zikina. Pixka bat txukunago jokatzen egin dezagun ahalegi-na. Ai, horrekin ere lehenago ohartu bagina. Orain, agian, ez genuke izango herriko bazter guztietan txiza usaina.

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegia, Maier Uranga Oinarrizko diseinua Goto Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larranaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Oñalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 12 Bergara > 13 Oñati > 14 Aretxabaleta > 15 Eskoriatza > 15
Antzuola > 16 Aramaio > 16 Elgeta > 16 Leintz Gatzaga > 16



> **BERGARA**
Hemezortzi ikasle eta bi begirale erreskatatu egin behar izan zituzten Oñatiko koba batetik > 13



> **OÑATI**
Eskulan ikastaroak antolatu ditu Udalak, eta izenematea etzi, eguaztena, hasten da > 14



> **ELGETA**
Yllana taldearen antzezlan musikal bat, 'Pagagnini', ikusteko aukera izango da Espaloian > 16



HASIBERRIAK Sukaldean moldatzen ikasi gura dutenendako pentsatuta dago Eskoriatzako sukaldaritzako ikastaroa.

AITZIBER SORIANO

BABARRUNAK PRESTATZEKO ERA

Osagaiak

- > Babak
- > Kipula
- > Piper berdea
- > Porrúa
- > Azenarioa
- > Gatza eta olioia

Nola prestatu

- > Aurreko egunean babarrunak uretan beratzen jarri.
- > Lapiko baten ura berotzen jarri.
- > Barazkiak txikitu eta, ura bero dagoenean, lapikora bota, babarrunekin batera. Olio koilarakada bat bota.
- > Lapikoaren araberkoa izango da babarrunak egiteko behar duen denbora. Lapiko azkarra bada, azkarrago egingo dira.
- > Babarrunak probatu eta, gatzik behar badute, bota.



BOCADORADA

ESKORIATZA > IKASTAROA

Sukaldaritzako biziraupen ikastaroa antolatu dute, batez ere, gazteendako

IRAKASLEA

Igor otadui izango da ikastaroko irakaslea

NOIZ

Urriaren 18an hasi eta azaroaren 29an amaituko da. Egunetan 19:30etatik 22:00ak bitartean

MAIER URANGA > ESKORITZA

Sukaldaritzako biziraupen ikastaroa antolatu du Eskoriatzako Udal Gazteria zerbitzuak. Hortaz, hemendik aurrera, ez dago aitzakiarik zartagin artean ez ibiltzeko. Sukaldatzen ez dakitenek, orain daukate aukera amantala ipini eta ikasten hasteko.

Gaur egungo bizimoduak bul-tzatuta, etxetik kanpora jatera, edo egindako janaria erostera ohituz goaz. Merkatuan dagoen egindako janari eskaintza hain da zabala, eta sukaldatzeari eskaintzen diogun denbora hain eskasa, gazte askok sukaldatzen ere ikasten ez duela.

EDOZEINENTZAT

Hori guztia kontutan hartuta, Eskoriatzako Udaleko Gazteria zerbitzuak sukaldaritzako ikastaroa antolatu du. Egunero jateko platerak prestatzen iraka-

tsiko dira bertan; zailtasun handirik ez dutenak, baina bizimodu egokia egiteko funtsezko egiten direnak. Izan ere, jaten dugunaren araberkoa izaten da gure bizitza, jaten duguna garelako.

18 urtetik gorako edozeinek eman dezake izena eskola horietan; eskoriatzar nahiz kanpoko, ikasle zein langile.

Antolatzailleen esanetan, gainera, modu egokia litzateke ikas-

IRAKASLEAREN ASMOAK

Sukaldatzen ikastea eta ondo pasatzea dira ikastaroarekin bete nahi diren helburuak

Igor Otadui emango du Eskoriatzako ikastaroa. Berak hainbat ikastaro eman izan ditu Arrasate eta inguruetan. Oraingoan, Eskoriatzan izango du, esperientziak lagunduta, sukaldaritzari buruz dakiena irakasteko aukera.

Hastapeneko sukaldaritzako sukaldean idearik ez duen ororentzat zuzendutako ikastaroa da. Hainbat menu dauzka pentsatuta Otadui, gero irakasteko; lehenengo eta bigarren plater bana eta postrea, menu bakoitzean.

Igorren esanetan, badago arraultza frijiturik egiten ez dakienik, baita etxetik kanpora joan eta beti janari berdina jaten duenik ere. Beraz, sukaldatzea arazo gerta ez dadin, eskola paregabeak dira Eskoriatzako Gazteria zerbitzuak antolatutakoak, edozeinek egitekoak modukoak.

taroa kanpotik datozen ikasleek eta herritarrek elkar ezagutzeko.

Plaza mugatuak izango dira, eta gehienez 15 pertsonak har dezakete parte; gutxieneko kopurua zortzi lagunekoa da.

Sukaldaritzako biziraupen ikastaroa urriaren 18an hasi eta azaroaren 29an amaituko da. Sei saio egingo dituzte guztira, astean behin, egunero.

Ordutegia ere aproposa da langile eta ikasleentzat; arratsaldeko zazpitan hasi eta gaueko hamarrak arte.

Parte hartzeko interesa daukan edozein Eskoriatzako Udaleko Gazteria zerbitzura joan behar da. Bertan emango diote ikastaroaren inguruko informazio zabalagoa, eta dudarik izatekotan, argitu egingo diote.

Izena emateko azken eguna urriaren 11 izango da, eta prezioa 15 euro da.

UDALA > OSOKO BILKURA

Zabor tasa %14 igoko da, San Markos zabortegia itxi egingo dutelako

Kopurutan begiratuta, zaborraren igoera ez da horrenbestekoa: iaz baino bost euro gehiago, batezbeste

Uraren tasa %5 igoko da; kolektore, araztegi eta halakoak egiteko lanen ondorioa da igoera hori

UBANE MADERA > ARRASATE

Datorren urteko zergen igoera zenbaterikoa izango den aztertu eta onartu zuen Udalak egubakoitzeko osoko bilkuran.

Eztabaida txikia izan zuten alderdiek puntu hori lantzeko orduan. Ezker Batuak emendakina aurkeztu ere egin zuen.

Azkenean, udalbatzarrak aho batez onartu zuen puntu hori. Hori horrela, 2008ko urtariletik aurrera, orokorrean %2,7 igoko dira Arrasateko zergak.

Edozelan ere, bi salbuespen izango dira, uraren eta zaborren zergekin lotutakoak. Hain justu ere, ur-tasa %5 igoko da, eta zaborren tasa, berriz, %14.

SAN MARKOSKO ZABORTEGIA

Alkateak azaldu zuen moduan, kanpotik ezarrita datoz bi igoera horiek: Zaborraren Partzuergotik eta Uren Partzuergotik.

Zaborren kasuan, San Markos zabortegiaren itxieraren ondorioz aplikatuko dute Arra-

Datorren urteko hainbat prezio

Turismoak

9 HPTik behera	38,33 €
9-11,99 HP	76,66 €
12-13,99 HP	127,77 €

Hilerria

Panteoia	9.000 €
Nitxoak	641 €
Errausketa	246,50 €
Beilatokia	60 €
Auzoetan ehorztea	116,30 €

Aukea

Abonua (igerilek.)	110 €
Abonu familiarra	172,35 €
Abonua (kiroldeg.)	110 €
Abonua familiarra	172,35 €
Abonu plusa	164,95 €
Kiroldegiko kantxa	30,85 €
Tenisa	4,15 €
Rokodromoa/skate	Doan

saten %14ko igoera. Hala azaldu du Ino Galparsorok, Arrasateko alkateak: "Komunikabideen eraginez, denondako da ezaguna aurturten San Markos itxi egin behar dutela. Bada, horren ondorioz, zaborra guk eramaten dugun zabortegi berera (Sasietara) eraman behar dute, eta kostuak asko igoko dira. Dena den, gai horren harira, esan gurako nuke gai benetan serio eta garrantzitsua dela zer egin horrenbeste zabor ez produzitzeko".

Kopurutan begiratuta, etxeko zabor bilketarengatik ordaindu beharko da 36,04 euro sei hilero; iaz baino bost euro gehiago, gutxi gorabehera.



UDALBATZARRA Giro lasaia eta eztabaida larregi bakoa izan zuten urriko osoko bilkuran.

UBANE MADERA

Uraren kasuan, berriz, Gipuzkoako Uren Partzuergoak %5eko igoera ezarri du.

Hori ere kopurutan begiratzeko badugu, uraren zerbitzua izateagatik, ur kontagailuen arabera prezioa kobratuko dute. Normalena izaten da etxeetan 15 milimetroko kalibredun kontagailua izatea. Bada, horregatik, datorren urtean 18 euro ordaindu beharko dugu. Horri gehitu behar zaio kontsumoaren araberrako tarifa. Hori horrela, 50 m³ arteko kontsumoarengatik 0,45 euro m³ bakoitzeko tarifa izango da; eta 500 metro kubikoko kontsumoarengatik, 0,89 euro m³ko tarifa.

Kolektore eta halakoekin obren eraginez izango da %5ekoigoera, alkatearen esanetan: "Ia bukatzen ari diren saneamendu sistemak eragina izango du prezio-

en igoeran, kolektore, araztegi eta horrelakoek. Dena den, geroago eta urriagoa den ondasuna da ura. Hori horrela, etorkizunera begira, aztertu beharko dugu sistema eraginkorragoa ipintzea gutxien gastatzen dutenak sari-tzeko".

BESTE SALBUESPEN BAT

Zerga kontuekin bukatzeko, aipatu behar da beste salbuespen bat ere izango dela 2008an. Hain zuzen ere, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga %5ekoa izango da. Kontua da zerga hori ordaintzen dutenek izaten dutela urtero bi milioi eurotik gorako fakturazioa; eta iaz ere aplikatu zuten zerga orokorretakoa baino igoera handiagoa. Horrela, aurturten bide beretik segitzea erabaki du Udalak.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez, berriz, horrek ez du igoerarik izango. Arrasateko Udalak kobratu daitekeen topea kobratzen du dagoeneko, beraz, ezin dute gehiago igo.

EAJ-N, ZINEGOTZI BERRIA

Bestelakoan artean, politika kontuak ere landu zituzten. Izan ere, EAJko zinegotzi Jose Ramon Uribarrenek uko egingo zion bere karguari bateraezintasun egoera dela-eta. Uribarren udal langilea ere bada, eta legeak galarazi egiten du zinegotzi batek funtzionario kargua betetzea. Horrela, egubakoitzeko batzarrean jakinarazi zuten Uribarrenen lekua hartuko duela Maria Luisa Larrañagak, EAJren zerrendan Uribarrenen hurrengo doanak.

INGURUMENA

Deba ibaian bitsa azaltzen jarraitzen du

U.M. > ARRASATE

Deba ibaian azaltzen diren aparrak berba izan dituzte oraingo astean Udalean. Ingurumen Saileko teknikari-buru Rafa Ugartek adierazitakoaren arabera, Deba ibaira doazen ur zikinak batzeko kolektorea egin zenetik, aparrak agertzea nahiko normala da:

Zerrajeran azaltzen denaz gainera, Fagor San Andres inguruan dauden bi ur saltoetan ere azaltzen da aparra. Edozelan ere, apar hori ez dela oso kutsakorra azaldu dute. Gaia Jaurlaritzaren eta Diputazioaren eskuetan utzi du Arrasateko Udalak.



U.M.

Leiho bat zabalik emakumeari

Emakumeon errealitateari begira izenburuarekin, erakusketa ikusgarri bi ipini dituzte Kulturateko klastroetan. Batetik, Emakumeekiko indarkeriaren aurkako kartelak izeneko erakusketa ipini dute. Maila altuko Espainiako artisten lanak dira horiek. Bestetik, argazki erakusketa bat ere bada, bideo emanaldi eta gutzi, *Leiho bat zabalik emakume etorkinen bide luzeari* izeneko. Biak ala biak urriaren 28ra arte izango dira ikusgai.

HAURRENTZAKO MASAJE IKASTAROA

Gurasoei zuzenduta, haurrekin parte hartuz

Ikastaroa:

Urriaren 20 eta 27an, goizez.

Izena ematea:

urriaren 8tik 17ra bitartean.



DEITU ETA INFORMA ZAITEZ!



San Lorenzo 54, behea. Oñati
Tel.: 943 53 32 99 - 652 712 123
eratu@euskalnet.net

GERTAKARIAK > ERRESKATEA

Oñatiko Gesaltza kobatik 18 ikasle erreskatatu behar izan zituzten

Mariaren Lagundiko 18 ikasle eta Natur Eskolako bi monitore kobatik atera ezinik geratu ziren eguerdian

Zorionez, erreskatea ondo joan zen eta 20:00etan atera zuten azken ikaslea kobazulotik

EDU MENDIBIL > BERGARA

Naturarekin gozatzeko eguna izan behar zena amesgaizto bihurtu zen Mariaren Lagundiko ikasle talde batendako. Egu-bakoitz goizean, DBHko 3. mailako bi talde joan ziren Gesaltza-Arrikruz ingurua ezagutzera, Oñatiko Natur Eskolako monitoreen eskutik. Bada, 18 ikasle eta Natur Eskolako bi monitore Gesaltzako kobatik atera ezinik geratu ziren, Arantzazu erreka-ur-goraldiaren erruz. Dirudienez, kobara sartu zirenean, eguerdian, erreka ez zeukan ur askorik, baina euriak eta ekaitzak bat-batean ekarri zuten ur-goraldia, denbora epe laburrean.

Urak kobarako sarrera oztopatzen zuela eta, ikaskideak atera ezinda zebiltzala ohartu zen kanpoan geratu zen Mariaren Lagundiko irakasle bat. Arrikruzera deitu zuen berehala, eta handik SOS Deietara eman zuten abisua. Bien bitartean, barruan

ziren ikasleak kobako zonalde garai batera eraman zituzten Natur Eskolako monitoreek, sarreratik 200 bat metrora.

Gipuzkoako Babes Zibilak emergentziarako operatiboa jarri zuen berehala martxan. Oñatiko Zubillagako suhiltzaileak, Ertzaintzaren mendiko taldea, espeleologia taldea eta Gurutze Gorria joan ziren bertara. Kobako sarrerara gerturatzea ez zen erraza, terreneoa aldapatsua delako eta lokatz asko zegoelako inguruan. Gipuzkoako Babes Zibileko arduradun Elena Morenoren hitzetan, "beraiengandik oso gertu ginen, 300 bat metrora, baina bi zailtasun gainditu eta indar handiarekin zetorren erreka zeharkatu behar zuten".

BI ORDU ETA ERDIKO ERRESKATEA

Hogei bat lagunek erreskaterako beharrezkoak ziren tirolinako gertatu zituzten eta, 17:30 aldera, lehen ikaslea ateratzea lortu zuten. Ordurako, ikasleen gurasoak, Mariaren Lagundiko irakasleak eta beste hainbat lagun inguratu ziren bertara. Nerbioak izan ziren nagusi, baina, ikasleak atera ahala, animuak lasaitzen joan ziren. Erreskate lanak ondo joan ziren, eta 20:00etan atera zituzten azken ikaslea eta Oñatiko Natur Eskolako bi monitoreak.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA Mariaren Lagundiko zuzendaritzarekin eta Oñatiko Natur Eskolarekin jarri da kontaktuan, baina nahiago izan dute, oraingoz behintzat, adierazpenik ez egitea gertatutakoaren inguruan.



KANPOAN Ikasleetako batzuk, sustoa pasata, irribarrez.

JOSETXO ARANZABAL



HUNKITUTA Gurasoekin batu ziren ueña hungigarria izan zen denondako.

JOSETXO ARANZABAL

Umeen minbizia aztergai urriaren 20an Bergaran

Minbizia duten umeen gurasoen elkarteak, Aspanovasek, jardunaldia egingo du urriaren 20an, Miguel Altuna institutuan. Jardunaldi informatibo hauen 11. ekitaldia izango da aurtengoa, eta helburuak, besteak beste, hauek dira: umeen minbiziaren arazoa jakinaraztea, solidaritatea eta sentibilizazioa bultzatzea, kaltetutako familiei informazioa helaraztea eta euren bizitzakalitatea hobetzeko urratsak ematea. Argibide gehiago, 943 24 56 20 zenbakian.



ASPANOVAS

> KULTURA

Aroztegi aretoan datorren urtean erakusketa egiteko eskaerak eta kultur taldeendako laguntzak

Aroztegi aretoan 2008an erakusketa egin nahi duten artistek urriaren 16ko 13:00ak arte dute eskaera aurkezteko epea. Eskaera orriak udaletxean eta kultura etxean eskuratu ahal izango dira. Bestalde, kultura elkarte eta taldeek 2007ko dirulaguntzak eskatzeko epea urriaren 24an bukatzen da, 13:00etan. Argibideak: 943 77 91 58.

UGARTE
AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



ERAKUSKETA Argazkian, eskulan ikastaroetan egindako lanekin osatutako erakusketa.

MARIAN GONZALEZ

IKASTAROK > ESKULANAK

Eskulan ikastaroetan izena eman daiteke urriaren 10ean

Kultura sailak antolatutako sei ikastaroak azarotik maiatzera bitartean eskainiko dira

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Udal Kultura sailak antolatutako eskulan ikastaroetan izena emateko epea, etzi, eguaztena, zabalduko da.

Bidebarrieta kaleko lokalean eskainiko diren eskulan ikastaroetarako plazak mugatuak dira. Hortaz, eskainitako plazak baino lagun gehiagok izena ematen badute, aukeraketa zozketa bidez egingo da. Izenak kultur etxeko

idazkaritzan eman behar dira, urriaren 20 baino lehen. Halaber, nagusien ikastaroetan parte hartzen dutenek 62 euro ordaindu behar dute, eta umeen ikastaroetakoek, 46 euro.

Sei ikastaro horien ordutegiaren inguruko informazio eta xehetasun guztiak kultur etxean bertan jaso daitezke. Ikastarook azaroan hasi eta maiatzean bukatuko dira.

SEI AUKERA

Nabarmentzekoa da, bigarren urtez, 20 orduko bitxigintzako bi ikastaro eskainiko direla. Esther Otxoa-Aizpurua izango da irakaslea.

Edozelan ere, gainontzeko bost ikastaroak 40 ordukoak izango dira. Zeramika ikastaroa Lucia Val irakasleak emango du; jostun lanak ikasteko jardunaldiak Arantzazu Lizarralde gidatuko ditu; egur lanerako ikastaroa, Jasone Agirrek; eta pinturako bi ikastaroak, Luis Laskurainek eta Jabier Moiuak.



MIREIA BIKUÑA

Unibertsitateko horman pintadak egin dituzte

San Miguel jaietako lehenengo aste bukaeran, hainbat txikizio egin zituzten Oñatin; besteak beste, Unibertsitateko hormak pintura gorri eta urdinez zikindu zuten. Unibertsitateko fatxada nagusian eta Zuazola institutu aldera begira dagoen horman, guztira, zazpi pintada egin ziren.

Halaber, kiroldegiko aparkalekuko argien gelara sartzen saiatu ziren, eta, bestalde, Kalegoieneko aparkalekuan, sei su-itzalgailu lapurtu egin zituzten.

APARKALEKUAK > DENBORA MUGATUKOAK

Denbora mugatuko hiru parking, postetxe aurrean

Gehienez ere, hamar minutuz utzi ahal izango da autoa hiru plaza horietan

M.B. > OÑATI

Joan den asteko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen postetxearen aurrean denbora mugatuko hiru aparkaleku egokitzea. Erabakia Oñatiko Guardia Zibilak haren egoitzaren aurrean ez aparkatzeko ipini duen debekuaren haritik hartu da. Aparkatzeko debeku hori abuztuaren 24an Durangoko Guardia Zibilaren egoitzaren aurka egindako atentatuaren ondoren ipini zuten.

Posta bulegoko zuzendariak Udalari egindako eskaeran zehazten da aparkatzeko debekuak posta bulegora joaten diren lagunengan duen eragi-

na, herritarrek postetxearen atzean aparkatzeko ohitura dute-eta.

Hala, posta bulegoko zuzendariak Udalari egindako eskaera aztertu zuten, eta aho batez onartu egin zuten udal ordezkariak.

HIRU APARKALEKU

Hartutako erabakiaren arabera, postetxearen aurrean egun dauden aparkalekuetatik hiru denbora mugatukoak izango dira aurrerantzean. Hala, kiroldegi aurreko aparkalekuen antzera, gehienez ere, hamar minutuz utzi daiteke autoa bertan, posta bulegoak duen arreta zerbitzuaren ordutegian: goizeko zortziak eta erdietatik, arratsaldeko ordu biak eta erdietara.

Erabakia hartuta egon arren, hiru plazak mugatzen dituzten marrak margotzea eta seinalea jartzea falta da.



HIRU TOKI Postetxearen aurreko aparkalekuak.

M.B.

OSASUNA

Gripearen txertaketa kanpaina, auzoetan

M.B. > OÑATI

Osakidetza egiten dabilen gripearen aurkako txertaketa kanpaina auzoetara iritsiko da, bihar eta etzi. Oñatiko Osasun Zentroko erizainak Olabarrieta eta Zubillagako auzotarrak txertatzera joango dira.

Hala, bihar, Olabarrieta-ko auzo elkartearen egongo dira txertoak ipintzen, 12:00etan hasita. Halaber, eguaztenean, Zubillagako bizilagunen txanda izango da. Txertoak elkartearen jarriko dituzte, arratsaldeko ordu bata eta erdietatik aurrera. Txertoa jaso gura dutenek osasuntxartela eraman behar dute.

ERRETIRATUAK

Ikastaro aukera zabala du Pake Lekuk

M.B. > OÑATI

Pake Leku erretiratuen elkar-teak gertu du ikasturte berrian eskainiko duen ikastaro zerrenda: besteak beste, areto eta sabel dantza ikastaroak, bitxigintza ikastaroa, orratz lanak egiteko ikastaroa eta sevillanak dantzatzen ikastekoa.

Oraingo hilabetean bertan hasiko diren ikastaro horien inguruko informazioa eguenean, arratsaldeko bostak eta erdietan, erretiratuen egoitzan egingo den bileran emango da.

Halaber, erretiratuek egiten duten bingo jokoa urriaren 18an hasiko da.

ARETXABALETA > ANBULATORIOA

Anbulatorioko langileak kexu dira, gaur egungo eraikinean lekurik ez dutelako

Anbulatorioan leku gutxiegi dutela kexu dira aspaldi honetan langileak. Udala saiatu da arazoari konponbidea ematen, baina arduradunak, Osakidetzak, ez du langileekin bat egin

IKER BARANDIARAN > ARETXABALETA
Irailan, Aretxabaletako ambulatorioko langileek eskaera bat egin zioten Udalari, daukaten egoitzaren eta Osakidetzaren gainekoa. Gai hori aztergai dute orain Udalean.

Anbulatorioko langileengan jo dugu azalpen eske, eta azaldu digute, gaur egun duten eraikinarekin, ambulatioarekin, oso mugatuta daudela aretxabaletarrek behar dituzten zerbitzuak ganoraz emateko.

TXIKIEGIA

Gero eta jende gehiago bizi da Aretxabaletan; gainera, Lagun Aroko osasun zerbitzua zutenek ambulatiora jotzen dute orain. Hori da ambulatorioa txikiegia gelditu izanaren arrazoietakoa bat. Baina badira beste batzuk.

Anbulatorioko langileek jakinarazi digute haurdunaldiaren aurreko eta osteko ginekologia zerbitzua emateko leku nahiko



ORAINGOA Gaur egungo ambulatorioa berritu gura du Osakidetzak; langileak ez datoz bat.

JOSETXO ARANZABAL

rik ez dutela. Horren aurrean, Udalak lokal bat eskaini zion ambulatioari, baina Osakidetzak ez du onartu gura izan. Osakidetzak Aretxabaletako ambulatorioa berrantolatu gura du, ginekologia zerbitzua oraingo eraikinean sartzeko.

Anbulatorioko langileek, berriz, uste dute gaur egungo eraikinean ez litzatekeela leku nahikorik egongo, eta berrantolaketak horrek ez lukeela ezer konponduko. Horregatik, Udalari eskatu zioten Osakidetzak egin gura dituen lanak atzeratzeko.

Aldi berean, ambulatorioko langileek Udalari eskatu diote Eguzkienea ingurunean etxeetan lokal bat uzteko, ginekologia zerbitzua bertan jartzeko.

Hala ere, ambulatorioko langileek eta Udalak Osakidetzarekin berba egin beharko dute.

ARETXABALETA

Osoko bilkura egingo dute gaur

Udal batzordeen egutegi eta ordutegiak ere erabaki dituzte

I.B. > ARETXABALETA

Gaurko, astelehena, ezohiko osoko bilkura deitu dute. Udalteko osoko bilkura aretoan egingo dute, 18:00etan, eta ordenantza fiskalak aztertuiko dituzte.

Bestalde, Udalak jakinarazi digu dagoeneko udal batzordeak hasi direla lanean, eta, hortaz, euren egutegiak eta ordutegiak finkatuta dituztela.

BATZORDEEN ORDUTEGIAK

Hirigintza batzordea martitzenetik elkartuko da udalarekin. 17:30erako egin dute hitzordua. Ogasun batzordea eguaztentean elkartuko da udalarekin. Hori 17:00etan egingo dute.

Bestalde, Kultura batzordea eguaztentean, hilaren 10ean, batzartuko da kultura etxean, eta egun horretan erabakiko dute aurrerantzean zer egunetan eta zer maiztasunekin batzartuko diren.

Jai batzordea, berriz, hilaren 24an elkartuko da kultura etxean, 18:00etan. Datozen jai eta ospakizun egunak antolatzen hasiko dira.

ESKORIATZA > AUZOAK

Apotzagarrek auzolanak egingo dituzte epe laburrera

Egun gutxi barru, auzolanak egingo dituzte, bideak garbitu eta urak bideratzeko

Auzo alkateak asmoa dauka batzar bat egin eta elizatearen premiak aztertzeke

I.B. > ESKORIATZA

Egun gutxi barru, Apotzagan, auzolanak egingo dituzte. Hala jakinarazi digu Apotzagako auzo alkate Gari Ibabek. Azken urteotan, ohitura bilakatu da udazken aldera hango auzotarrek batu eta Apotzagan premia duten lanak egitea. Aurten ere, ez dute kale egingo. Horren asmoa dute, behintzat.

Auzolanerako jarri dituzten lehentasunen artean, bideen garbiketara egitea eta urak hobeto bideratzeko beharra nabarmendu dute. "Urek bere bidetik, bere lekutik joan behar dute, eta horretarako erraztasunak eman behar zaio urari. Bestela, askotan, gainezka egin eta bideak ureztatzen zaizkigu".

Horrez gain, auzo-bideak eta mendi-bideak ere garbituko dituzte datozen egunotan, "badu-

te-eta horren premia", azaldu digute. Hala ere, seguruenik, izango da beste lanik ere.

PREMIAK AZTERTZEKO BATZARRA

Bestalde, epe laburrean, Gari Ibabe auzo alkateak apotzagarrekin batzarra egiteko asmoa dauka.

Batzar horren helburua izango da datozen hilabeteotarako Udalak elizatean egin beharreko lanak zehaztea. Horretarako, aurretik dituzten premia nagusienak adostu beharko dituzte.

ELIZATEEN ELKARTEAK BATU

Gerora, behin apotzagarrek premia nagusiak adostuta, Ibabek Elizateen Elkartera eraman beharko ditu; eta hortik bateratuta, Udalean aurkeztuko dituzte udal aurrekontuetarako.

> ESKORIATZA

Ekainean AHTri egindako alegazioetako baten erantzuna jaso dute Maringo auzotarrek

Onbide plataformak jakinarazi digu ekainaren 3an egindako alegazioen erantzun bat jaso dutela. Legutiotik Marinerako AHTren tramuari egin zituzten alegazioak. Marindarrek eta Onbide hainbat alegazio aurkeztu zituzten, baina erantzun bakarra jaso dute. Hala ere, erantzun horrek ez du ezer konpontzen. Onbide azaldu duenez, erantzun bakarra da Gobernu Zibila partzelataz bakarrik arduratzen dela; eta proiektuaz aritzeko, berriz, Tren Azpiegituren Administrazioa jo behar dutela. Onbidek salatu du AHTk, zabaleran, alde bakarrean, segurtasunerako 70 metro behar dituela eta, ondorioz, lursail asko erabili ezinik geldituko dela.

IZARTU
KAFETEGIA

Iralabarri plaza 8 Aretxabaleta Tel.: 943 77 11 81



Gosariak 7:30etik aurrera!

Gosari bereziak 2.90 eurotan

ARAMAIO > MARGO LEHIAKETA

Itur-Zuri emakume elkarteak antolatuta, 16. Margo Lehiaketa egingo dute Aramaion

Edonork hartu dezake parte lehiaketan, eta erabilitako teknika librea izango da

Aurkeztutako lan guztiak Sastiñan egongo dira ikusgai urriaren 12tik 22ra

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Urriaren 12an, aurten ere, Aramaio kaleak margolariz beteta ikusiko ditugu, Itur-Zuri emakume elkarteak antolatuta, 16. Aire Zabaleko Margo Lehiaketa jokatu dute eta.

Edonork hartu dezake parte lehiaketan, eta margotzeko erabilitako teknika librea izango da. Parte-hartzaileek goizean goiz hartuko dituzte pintzelak. Margolariak goizeko bederatzietan hasiko dira lanean, eta hamaiak baino lehen lanak bukatuta eta sinatuta eduki beharko dituzte. Herriko parajeak margotu beharko dituzten Aramaio eta bere ingurua baita Iturzuri Elkarteak aurtengo lehiaketarako aukeratutako gaia.

Lehiaketa ostean, aurkeztutako lan guztiak Sastiñan egongo dira ikusgai urriaren 12tik 22ra arte. Margolanak berreskuratu ahal izango dira urriaren 17tik 22ra bitartean.



IAZKO IRABAZLEA Carlos Baudilio margolari bilbotarra, haren lanaren aurrean.

ARTXIBOA

LEHIAKETAREN ARUAUAK

Artelanak baloratuko dituen epaimahaia artista ospetsuz osatuta egongo da, eta Itur-zuri elkarteak jakinarazi du epaimahaiaren erabakia aldezina izango dela. Sei sari banatuko dituzte guztira, bi taldetan bana-

tuta, helduena eta 16 urtetik beherakoena. Helduen taldeko hiru onenek 600 euro, 360 euro eta 240 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren. Gaztetxoaren sarietako dagokienez, lehenengoak 150 euro irabaziko ditu, bigarrenak 60 euro eta hirugarrenak

30 euro. Irabazleen margolanak Itur-Zuri emakume elkartearendako izango dira.

Lehiaketa ondo amaitzeko, antolatzaileek bazkaria emango diete lehiaketan parte hartutako guztiei, arratsaldeko ordu biak eta erdietan.

LEINTZ GATZAGA

Urriaren gasa izango duten itxaropena daukate

Joan zen astean bidali zuten baimena lortzeko agiri bat Industria sailera

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gasa iristear dago Gatzagara; Jaurlaritzako Industria sailaren baimena besterik ez du behar Udalak, herritarrei aurrera egin dezaketela esateko. Eta urte guztia zain egon ondoren, egun gutxiko kontua izango den itxaropena dauka Eusebio Villar alkateak.

GAS-TANGAK BETE

Industria sailak joan den astean jakinarazi zien agiri bat falta zela baimen eskaeran, eta esan orduko bidali zuten aipatutako agiria. Hori horrela, baiezkoa astean bertan iritsiko den itxaropena dauka alkateak, eta herriaren gainaldetan, Gasteizera bidean, jarritako bi gas-tangak betetzen hasiko liriteke. Hori guztia egindakoan, herritarrei jakinaraziko die Udalak, eta etxe barrura gasa sartzeko lanak hasiko dituzte orduan.

Gasaren hodiak sartzeko lanak iaz egin zituzten herriko zati baten lehen fasean sartutako zatian. Horregatik, herritarrek luze irizita dauke, eta urtebeteko atzerapenez bada ere, pozik hartuko dute.

ANTZUOLA > ERRETIRATUAUAK

Kultura Astea ospatuko du erretiratuen elkarteak datorren astean barrena

Urriaren 16tik 19ra bitartean, hainbat ekitaldi izango dira: hitzaldia, irteera eta antzerki emanaldia, besteak beste

AINTZANE IRIZAR > ANZUOLA

Urriaren 16tik 19ra ospatuko dute Antzuolako erretiratuek II. Kultura Astea. Iaz antolatutako lehen aldiz, ordu arte, Bergarako San Joxepekoekin batera antolatzen zuten.

Martitzenean, hilak 16, askaria eta kina jokoa izango dituzte erretiratuen lokalean, 17:30ean hasita. Eguaztenean, pentsioen gaineko berbaldia egingo du Alejandro Okariz

Kutxako marketing arduradunak, Olanen etxean, 18:00etan.

Eguenerako, urriak 18, Errioxara irteera antolatu dute. Lehendabizi, Navarrete joango dira eta hestebete enpresa bat bisitatuko dute; hantxe egingo dute hamarretakoa. Ondoren, Corral upeltegiak ikustera joango dira. Bazkalduko dute Fuenmayorren, eta bazkalostean, Santo Domingo de la Calzada bisitatuko dute. Bihar edo etzi, hilak 9 edo 10, eman behar da izena irteerara joateko, 18:00etatik 19:00etara. Irteeraren prezioa da 25 eurokoa.

Bukatzeko, egubakoitzean, antzerki emanaldia izango dute, Olanen, 18:00etan. *El fotografo* eta *Mi real gana* antzezlanak eskainiko ditu Legazpiko erretiratuen elkarrekin antzerki taldeak.

ELGETA > ANTZERKIA

Musika klasikoaren gaineko ikuspegi oso originala emango dute lau musikaririk

Inoiz musika klasikoa aspergarria iruditu zaien lagunei bereziki zuzendutako lana da Yllanaren 'Pagagnini' antzezlan

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Jendetsuak izaten dira Elgetan Yllana taldearen emanaldiak. Kasu honetan, Yllana konpainiak Ala Malikian musikariarekin batera ekoiztutako lana izango dugu ikusgai Espaloian.

Ikuskizunak *Pagagnini* du izena. Horixe da taula gainean ikusiko ditugun lau musikariek osatzen duten laukotearen izena, hain zuzen ere. Eduardo Ortega, Thomas Potiron, Gartxot eta Ara Malikian biolin-jole handia dira



'PAGAGNINI' Laukoteak arrakasta handia lortu du bere emanaldietan.

YLLANA


aktoreak. Musika klasikoaren ikuspegi oso originala eskainiko digute. Guztia, Yllana taldearen ezaugarrietako bat den umorea-

rekin bustia. Besteak beste, Vivaldi, Mozart eta Pachelbel konposatzaileen partiturak joko dituzte. Nola jo, gainera!

Kirola



> **FUTBOLA**
Aloñak 2-1 irabazi zuen Berioaren aurka Azkoagainen > 19



> **PILOTA**
Mikel Deuna Sariko finalak jokatu zituzten zapatuan > 21



> **SASKIBALOIA**
Bergarak ezin izan zuen Alde Zaharra gainditu zapatuan (45-54) > 22



> **SASKIBALOIA**
Hondarribia Irun, Euskadiko Kopako txapeliduna Eskoriatzan > 22



ERASOA Furod Mugarriko jokalaria bat, baloia jaurtitzeko unean.

ARTXIBOA

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Derbian, Ford Mugarrik erraz menderatu zuen Bergara (32-15)

GARAIPEN ERRAZA

Ford Mugarrik uste baino errazago irabazi zuen derbia; Bergara motel ibili zen

FORD MUGARRI

Arrasatearrek gogor hasi dute denboraldia, eta defentsa bikaina dutela erakutsi dute

EDU MENDIBIL > BERGARA

Derbiak bereziak izaten dira gehienetan, indarrak parekatu egiten direlako. Atzokoan ez zen horrelakorik gertatu: Arrasateko Ford Mugarri taldeak erraz irabazi zion Bergarari, eta 32-15eko emaitzak argi uzten du etxekoen nagusitasuna. Beñardo Balerdiren eta Fertxu Rodriguezen mutilek gogor hasi dute denboraldia: aurreko asteburuan Basaurin berdinketa lortu zuten eta domekan 17 goleko abantailarekin irabazi zuten.

Arrasatearrek erakutsitako defentsa sendoa eta bergararrek erasoan erakutsitako ahulezia izan ziren partiduko gakoetako bi. Markagailua, bost minuturo, horrela joan zen: 0-1, 5-1, 7-1, 10-3, 12-3, 16-5 (lehen zatia); 19-8, 22-12, 23-13, 26-14, 29-14 eta 32-15. Partidua goizeko hamarretan jokatu zen eta, derbia izateko, ikusle gutxi

batu ziren Iturripen. Egubakoitze-ko Maritxu Kajoi jaiak eta domekako Kilometroak ospakizunak izango zuten zerikusia horretan.

Kontuak kontu, hasi berri den Euskadiko Txapelketan, goialdeko lehia horretan jarduteko gauza direla erakutsi zuten arrasatearrek atzo. Bigarren urtea dute maila horretan, eta atzoko modu-

ko defentsa egiten badute aurrerantzean, aurkariek zaila izango dute arrasatearrek menderatzea. Beñardo Balerdi zein Josetxo Muniategi entrenatzaileak bat etorri ziren hori azpimarratzean.

Muniategi bergararra ez zegoen batere pozik bere taldeak jokatu- tuko partiduekin; jokalariai beteranoenek ere ez zuten maila-

rik onena azaldu atzo, eta erritmo falta nabaria izan zuen taldeak. Orain arte jokatu- tuko bi partidua galdu dituzte mahoneroek, eta bietan ere, jipoi ederra jaso dute markagailuan. Adi egon beharko dute hurrengo jardunaldietan.

KONTRAERASOAN, MINA

Kontraerasoan iritsi ziren etxekoen gol gehienak. Aipagarria da Ford Mugarri taldean Josu Herro zentralak egindako partidua. Taldeko gazteena izanik, ausardia erakutsi zuen, eta bost gol lortu. Markagailuan alde nabaria egon arren, borroka ez zen falta izan: Arrasatekoek bost kanporatze jaso zituzten, eta bisitariak, hamar. Bolada onari eusten ahaleginduko da Ford Mugarri hurrengo astean; egubakoitzean, Zumarragan jokatu- tuko dute, eta domekan, Lea talde gasteiztarra hartuko dute.

ESANAK

"Erasoa hain eraginkorra izan ez arren, defentsan sendo ari gara, eta uste baino hobeto irabazi dugu gaur"

Beñardo Balerdi > Ford Mugarri

"Erraz irabazi digu Arrasatek; erritmo falta erakutsi dugu, eta ia zoko sentsazioak erreperatu beharra daukagu"

Josetxo Muniategi > Bergara



Karaoke Ikuskizuna

OÑATIKO GAZTELEKUAN

Urriaren 20 eta 21ean

Urriak 20an:


1.saioa: 16:30ean
2.saioa: 17:45ean
3.saioa: 19:00etan

Urriak 21ean:

1.saioa: 16:00etan
2.saioa: 17:10ean
3.saioa: 18:10ean
4.saioa: 19:10ean

Zatoz zure herriko kantariak animatzera!!

BABESLEA



gaztetxo
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

PREFERENTE MAILA > ALOÑA MENDI-BERIO

Bi penalti huts egin arren, hiru puntuak etxean geratu ziren

ALOÑA MENDI

2-1

BERIO

Aloña Mendi > Idigoras, Barrena, Sanchez, Olalde, Ugarte (Astigarraga, 60. min.), Idigoras (Arregi I.a, 70. min.), Elgarresta, Arregi I.a, Camino, Zubia (Carpintero, 70. min.), Maiztegi.

Berio > Calafell, Olaizola, Alvarez de Eulate, Oria, Garmendia, De la Fuente, Gabilondo, Monreal, Arzelus, Lazkano eta Galarraaga.

Bestelakoak > Zale gutxi joan zen Azkoagainera partidua ikustera.

Aloña aurretik jarri zuen markagailuan. Korner baten ondoren izan zen: Olalde baloia errematatu eta gola egin zuen. Atsedeneren aurretik, etxeko taldeak bigarrena egiteko aukera ederra izan zuen, izan ere, Roberto Idigoras are barruan egindako falta adierazi zuen epaileak. Hala, penaltia Unai Arregik bota zuen, baina baloia gora joan zitzaion.

Atsedenera, hortaz, 1-0 aurretik joan zen Aloña. Bigarren zatian, Aloñak beste penalti bat izan zuen alde. 55. minutuan izan zen: bigarren hori Iker Olalde jaurti zuen, baina atezainak baloia geratu egin zuen. Etxekoen zorixarrerako, hurrengo minutuan Berioaren gola iritsi zen; Monrealek egin zuen.

AZKEN MINUTUETAN, TENTSIOA

Ondoren, donostiarrek gora egin zuten, eta zelai erdian presioa egiten hasi ziren; hala ere, etxeko taldeak ondo egin zituen lanak, eta bigarren gola egitea lortu zuen: 70. minutuan, Caminok buruz lortu zuen. Azkeneko minutuak gogorak izan ziren. Donostiarrek epailearen hainbat erabakirekin desadostasuna erakutsi zuten, baina hiru puntuak etxean geratu ziren.



UNAI ARREGI Irudian, Aloñako jokalaria Unai Arregi, lehian.

JOSETXO ARANZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Bi penalti huts egin arren, Aloñak hiru puntuak eskuratu zituen zapatuan Berioaren aurka. Herriko jaiak zirela-eta, etxekoek partidua domekati zapatu aurreratu zuten; ondorioz, zale gutxi hurbildu zen zapatuan preferente mailako 5. jardunaldiko partidua ikustera.

BIGAREN MINUTUAN, GOLA

Etxekoentzat ezin hobeto hasi zen lehia; 2. minutuan, Iker Olalde

PREFERENTE MAILA > UDA ETA MONDRA

UDAK irabazi egin zuen, eta Mondrak, berdindu

Aretxabaletakoek Azkoitian jokatu zuten Anaitasunaren aurka, eta Arrasatekoek, Pasai Antxon, Trintxerperen aurka

A.E. > BERGARA

Aretxabaletako taldeak partidua bikaina jokatu zuen zapatuan Azkoitian. Igor Arenazaren taldeak hasieratik hartu zuen zelaiaren jabetza; lan ona egin zuten, bereziki alde fisikoan, baina baita teknikoki ere. Lehenengo minutuetan, ondo mugitu zuten baloia zelaiaren erdialdean. Barneratze

politak eta arriskutsuak egin zituzten; hala, arriskua sortu zuten etxeko taldearen area inguruan. Gola area ertzeko falta baten ondoren iritsi zen, eta Ivan Lopezek egin zuen, 30. minutuan. Atsedenera abantailarekin joan ziren aretxabaletarrak, hortaz.

TALDEAK, JARRERA ONA

Bigarren zatian, UDAK ondo kontrolatu zituen partidua nondik norakoak; zelai erdian baloiaren jabetza izan zuten, eta defentsan oso indartsu aritu ziren. Gainera, bigarren gola egin zuten, baina epaileak ez zuen ontzat eman. Hala ere, aretxabaletarrek hiru puntuak ekartzea lortu zuten. Igor

Arenaza pozik zegoen taldeak egindako lanarekin, baina, bereziki, taldekideen jarrerarekin: "Guretzat, garrantzitsua izan da garai-pena; belar naturalean jokatzerako ohitu barik gaude, eta gaurkoan jokalariek izan duten jarrera gorripatekoa izan da", esan zuen partidua amaieran.

MONDRAK, BERDINDU

Bestalde, Mondrak binako berdinketa lortu zuen Trintxerperen aurka. Arrasateko taldeak ez du partidurik galdu oraingo denboraldian; orain arte jokatutako bost partiduetatik bi irabazi egin ditu, eta hiru, berdindu. Hirugarren dira sailkapen orokorrean.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Ordizia	13	5
2. Hernani	11	5
3. Mondra	9	5
4. Berio	9	5
5. UDA	9	5
6. Euskalduna	8	5
7. Aloña Mendi	8	5
8. Real Union	7	5
9. Zumaiko	7	5
10. Trintxerpe	7	5
11. Vasconia	6	5
12. Eibartarrak	5	5
13. Aurrera	5	5
14. Idiazabal	4	5
15. Anaitasuna	4	5
16. Touring	4	5
17. Hondarribia	4	5
18. Zestoa	4	5

Emaitzak	
Zumaiko-Real Union	1-2
Vasconia-Hondarribia	2-1
Aloña Mendi-Berio	2-1
Zestoa-Ordizia	1-1
Idiazabal-Euskalduna	1-1
Anaitasuna-UDA	0-1
Eibartarrak-Aurrera	3-1
Hernani-Touring	2-0
Trintxerpe-Mondra	2-2

Hurrengoak	
Real Union-Vasconia	
Hondarribia-Aloña Mendi	
Berio-Zestoa	
Ordizia-Idiazabal	
Euskalduna-Anaitasuna	
UDA-Eibartarrak	
Aurrera-Hernani	
Touring-Trintxerpe	
Mondra-Zumaiko	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA	
Bergara-Mutriku	3-0
Antzuola-Lagun Onak	5-2

BIGAREN ERREGIONALA	
BTLs-Anaitasuna	3-0
Mondra-Gazteak	atzeratuta
UDA B-Elgeta	1-1

EMAKUMEZKOAK	
Ordizia-Bergara	0-1
Arizmendi B-Mondra	0-9
Lazkao-BTLs	2-2
Elgoibar-Arizmendi	4-2

OHOREZKO GAZTEAK	
Mondra-Bergara	2-4
Urola-Aloña Mendi	3-2
UDA-Orioko	1-1

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK	
Aretxabaleta B Arizmendi-Ikasberri	2-1
Bergara	atsedena

OHOREZKO KADETEAK	
Aloña Mendi-Elgoibar	2-2
Bergara-Beasain	3-1

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK	
Bergara B	atsedena
Arizmendi-UDA B	1-3
Eibartarrak-Arrasate	1-0

KADETE NESKAK, F11	
Eibar-Eibartarrak-Arizmendi	0-1
Aloña Mendi	atsedena

KADETE NESKAK, F8	
Ordizia-Bergara	2-3



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

SIMS SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Haitz-Iturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO


www.euskoauto.toyota.es

**BETE EZAZU ZURE YARIS
AUTOA BIZIPENEZ.**



UTB: %5,00
SARRERA-KUOTA: 5549 €
100 EUROKO 84 KUOTA

Toyota Yaris  1.3 87 ZP 100 € hilean*
Aire girotua, 15" aleaziozko hagunak eta Bluetooth Stereo.

TODAY TOMORROW **TOYOTA**FINANCIAL
SERVICES

TOYOTA

**Informazioa eta probatzeko
902 342 902**

EuskoAuto

Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85

BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

*Toyota Yaris Blue 1.3 3 ate, 87 ZP. Publikoarentzako salmenta prezio gomendatua 12.650 euro, 84 hilabetetara finantzatua. Finantzazioak irauten duen denboran 100 eurotako kuota hilean. Sarrera 5.549 euro. Irekitze komisiorik gabe. TIN %4,89. TAE %5. Atzeratutako prezio totala 13.949 euro. 2007ko urriak 31ra arte baliozkoa. Espainiako Toyota Kreditbank GmbH sukurtsalaren eskaintza finantzarioa. Publikoarentzako salmenta prezio gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoentzat. BEZA, garraioa, matrikulazio zerga eta promozioa barne. Prever plana EZ dago barne. Iragarkiko modelo: Toyota Yaris Sol 3 ate, aleaziozko hagunak aukeran. CO2 (g/km) igorpena: 119 eta 141. Kontsumoa media (l/km): 4,5 eta 6,0.

PILOTA > MIKEL DEUNA SARIA

Nagusien finala bertan behera geratu zen Atxotegi lesionatu ondoren

Gazte mailako partiduan, Iriondo eta Olalde 22-19 irabazi zuten Rodriguez eta Perezen aurka

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Nagusi mailako finalean, Atxotegik min hartu eta lehia utzi behar izan zuen; momentu hartan, finala 8-4 zegoen, bikote nafarraren alde. Alde batetik, Iruritako Urta-sun eta Arraztoa ari ziren, eta bestetik, Soralezeko Atxotegi eta Jauregi. Finala amaitzerik egon ez bazen ere, txapeldunen garaikurra bikote nafarrak eroan zuen.

Zubikoa kiroldegira joandako ikusleak pilota gosez ez uzteko, lau terdiko lehia antolatu zuten Aloña Mendiko pilota sailekoek. Soralezeko Jauregi eta Iruritako Arraztoa aritu ziren nor baino nor gehiago.

Lehia 12 tantotara izan zen; parekatuta ibili ziren bi pilotariak, baina, azkenean, Arraztoa nafarrak 12-11 irabazi zuen.

GAZTE MAILAKO FINALA

Nagusien finala baino lehenago, baina, gazte mailakoa jokatu zen. Iriondo eta Olalde 22-19 irabazi zuten Rodriguez eta Perezen aurka. Partidua polita izan zen; tentsio handikoa, gainera. Iriondo eta Olalde 18-12 galtzen ibili ziren, baina, azkenean, aurre egin eta txapela irabazi zuten. Amaieran, garaikurrak banatu zituzten; Aloña Mendi elkarteko Anton Inza presidentek, besteak beste



GAZTE MAILAKOA Iriondo, pilotari emateko gertu.

JOSETXO ARANZABAL

Harrijasotzaileak eta aizkolariak, Oñatiko Herri Egunean jo eta su

Giro onean aritu ziren zapatuan Oñatiko plazan harrijasotzaileak eta aizkolariak herri kiroletan. Lehenengo, Izeta II.a eta Aimar Irigoien gaztea aritu ziren; desafioa izan zuten. Ondoren, nesken txanda iritsi zen: Mari Jose Sardonek eta Miren Urkiolak erakustaldi bikaina egin zuten oñatiarren aurrean.

Bestalde, aizkoran, Olasagasti, Ugaitz Mugerza, Mindegia eta Rekondo aritu ziren. Aurkezle lanetan, Gabixola aritu zen zapatuan Oñatiko plazan.



JOSETXO ARANZABAL

> HERRI KROSA

Hirugarren egin du Ritxar Fernandezek Zumaiaiko Zakila Bira lasterketan

Oñatiarrak 1.07.01eko denbora behar izan zuten Zumaiaiko lasterketa herrikoia amaitzeko. XI. Zakila Bira edizioa izan zen zapatuan Zumaian jokaturakoa. 20 kilometrotako lasterketan, garaipena Eibarko Asier Cuevasek lortu zuen (1.04.17), eta bigarrena David Martin izan zen (1.04.44). Hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuten, hortaz, Ritxar Fernandez lasterkariak.

Fernandez Giokela-Atxintxiketan elkarteko kidea da; gainera, zapatuko lasterketan babesle berria estreinatu zuen: Giokela. Bestalde, 29. postuan Iker Sarabia arrasatearra sartu zen, eta Bergarako Roberto Zurro eta Iker Herran, 34. eta 35. postuetan, hurrenez hurren.


> PALA

Bihar hasiko dute Joteko prest! pala txapelketa Aretxabaletan

Aurtengo Joteko prest! pala txapelketarako 14 bikotek eman dute izena. 19:30ean hasiko dute txapelketa, Aretxabaletako Iturrigorri frontoian.

Partidu guztiak martitzen eta eguenetan jokatu dira Iturrigorrin. Txapelketak bi hilabete iraungo du; finala abenduaren 14an jokatzea aurreikusita dago. Ordurako, bertso afaria antolatu dute, eta jai giroa izango da nagusi.

Loramendi euskara elkarteak antolatutako txapelketa da, eta aurtengoa bigarren edizioa izango da. Iaz izandako arrakasta ikusita, errepikatzea erabaki dute antolatzaileek eta, aurtengoa, arrakasta handiagoa izango duelakoan daude. Dena gertu, hortaz, txapelketarako.



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa



Telleria 23, D5 pabilioia
Labegarieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com



SASKIBALOIA > GIPUZKOAKO LEHEN MAILA

Donostiarrak nagusi, azken laurdenean izan ezik

Bergara Candyk galdu egin zuen Alde Zaharraren aurka (45-54); jokaturako hiru partiduak galdu ditu Bergarak

CANDY

45-54

ALDE ZAHARRA

Candy > Bernardo, Blazquez (2), Arazkona-ga (4), Morais (21), Arteaga (4), Murillo, Beiz-tegi, Aizpurua, Olaetxea (4), Iñarra (5), Herzog, Eraña (5).

Alde Zaharra > Lasala (4), Lopez (3), Lazka-no (2), Larrañaga (6), Hernando (4), Gonzalez (2), Diaz, Zapata (16), Merino (7), Lopez, Alustiza (12), Hernandez (1).

Laurdenetako emaitzak > Lehenengolaurdena: 10-11. Bigarren laurdena: 13-24. Hirugarren laurdena: 21-37. Laugarren laurdena: 45-54.

Azken laurdenean izan ezik, donostiarrak izan ziren nagusi partidu osoan zehar. Altuera falta igartzen dute bergararrek, eta jarraian galtzen duten hirugarren partidua izan zen zapatukoa. Kilo-metroak jaiaren erruz, partidua Mariaren Lagundiko kantxan jokatu zen. Kantxa berezia da hangoa; jokalarien izerdia bertatik bertara usaindu daiteke. Izerdi ugari egin bai, baina emaitzarik ez zuten jaso etxekoek. Lehen laurdenean, gauzak estu izan ziren, baina, hortik aurrera, donostiarrak izan ziren nagusi. Bisitarien alde-tik, Zapata izan zen erabakigarria: 16 puntu lortu zituen.

PRESIOA EGINEZ, HOBETO

Esan bezala, laugarren laurdena iritsi arte, Bergarak ez zuen bere maila onena erakutsi. Mikel Etxeberria entrenatzaileak kantxa osoan presioa egiteko agindu zien bere jokalariei, eta gauzak ondo egiteko gaitasuna azaldu zuten bergararrek; 24-17 nagusitu ziren



ERREBOTEA Altuera falta igarri zuen etxeko taldeak zapatuan.

JOSETXO ARANZABAL

azken laurdenean. Hala ere, ordurako beranduegi zen, donostiarrak abantaila nahikoa lortuta zeukatelako. Batez ere, bigarren laurdena erabakigarria izan zen partiduko emaitza donostiarran aldekoa izateko. Hamar puntuko aldea erdietsi zuten bigarren laurden horretan (3-13). Punteria falta erakutsi zuten etxekoek, urru-

neko jaurtiketetan, batik batik. Esan bezala, bergararren erreazioa etorri zen azken zatian. Partidua bukatzeko minutu bat falta zela, sei puntura jarri ziren bergararrak, baina donostiarrak ez zuten etsi. Etxekoen partetik, azpimarratzekoa da Jesus Moraisek egini-kopartidua: 21 puntu egin zituen, horietatik 15, azken zatian.

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarako senior mailako taldeak oraindik ez dio neurria hartu kategorian berriari. Zapatuan berriz galdu egin zuen, Donostiako Alde Zaharra taldearen aurka, bederatziko puntuko aldeagatik.

Aurreikusitako moduan, Hondarribia Irunek irabazi du Kopa

Hondarribia Irun da saskibaloiko Euskal Kopako txapelduna, atzo Eskoriatzan 78-46 irabazi ondoren Leioako Irlandesas taldeari. Bi taldeen arteko aldea nabarrian geratu zen bigarren laurdenetik aurrera, izan ere, zati horretan, 25-3ko partziala egin zuten Hondarribikoek, eta hori nahiko izan zuten partidua irabazi eta kopa etxera eramateko. Hondarribia Irun taldean, Itziar Mallabiarrena arrasatearrak jokatu du; atzokoan, minutu asko jokatu zituen. Amaieran, Hondarribia Irunek txapeldunaren garaikurra jaso zuen, Irlandesas-ek txapeldunordearena, eta Samatha Christon amerikarrak jokari onenaren garaikurra eroan zuen.



JOSETXO ARANZABAL

LEHENENGO MAILA

Irabazten hasi du liga Arrasateko taldeak

CAFES AITONA

75-87

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

A.E. > BERGARA

Denboraldiko lehenengo lehia, garaipena lortu dute Arrasateko mutilek. Zapatuan, Donostian, 75-87 irabazi zuen Iñaki Merinok zuzentzen duen taldeak.

LEHIA BERDINDUA

Nahiko lehia parekatua izan zen Donostian jokaturakoa; batez ere, lehenengo zatian nabaritu zen berdintasun hori. Hala, atsedenerako minutu bat falta zenean, 43-42 aurretik zen etxeko taldea.

Aldagelatik bueltan, arrasatearrak indarberrituta ateraziren; markagailuan aurretik jartzea lortu zuten Merinoren mutilek eta, lehia amaitu arte, nagusi izan ziren markagailuan. Hala ere, ez zen samurra izan donostiarraren eraso geratzea. Izan ere, kanpoko jokoan abilak direla erakutsi zuten etxekoek; hala, zazpi hiruko saskiratze lortu zuten arrasatearren aurka. Azkenean, baina, arrasatearrek ondo eutsi zioten errentari eta garai-pen garrantzitsua lortu zuten.

ONDO HASTEAN, GARRANTZITSUA

Iñaki Merino pozik zegoen taldeak egindako lanarekin. Aurtengo denboraldiaurrea oso ona izan da; zapatuko garaipena izan zen horren adibide. "Taldea gogoarekin ikusi dut, eta dena eman dute", adierazi zuen partidu amaieran. Datorren astean, egubakoitzean jokaturako dute: 12:00etan, Goierriren aurka.

sailkapenak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Cafes Aitona-MU 75-87

GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA

Candy-Alde Zaharra 45-54

GAZTE MUTILAK

MU-Ordizia 60-52

Oizartun-Aloña Mendi 26-59

Bergara-Krafft 39-36

KADETE MUTILAK

MU-Caldereria Zehar 67-69

KADETE NESKAK

Eskoriatza-Bera Bera 46-32

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **BERTSOLARITZA**
Kanporaketak jokatuta, Agirreazaldegik jarraitzen du > 26



> **JAIK**
Oñatin Herri Eguna ospatu zuten, eta gaur, Errosarixo Bixamona > 26



> **GOVERNORS**
Juan 'Odola'-ren talde berriak lehen diskoa kaleratu berri du > 27



> **ADELA GONZALEZ**
Kazetari eta aurkezle horrekin berba egin dugu > 29



ETXAFUEGOAK Maritxuk miraria egiteko unean, etxafuegoak bota zituzten, eta Mahai Nazionaleko kideen atxiloketak salatzeke aprobetxatu zuten.

IMANOL SORIANO

JAIK > MARITXU JAKOI

Gaupasa Maritxuren zaintzapean

Gero eta goizago hasten dira jaizaleak: hala, jatetxeak bazkaritarako egoten dira beteen

Bilbotik, Bartzelonatik... leku askotatik etorri ziren autobusez jaizaleak, ondo pasatzeko gertu

MAIER URANGA > ARRASATE
Barikuan, ez zen lagun bat gehiago sartzen Arrasateko kaleetan. Milaka pertsona elkartu ziren, dotore-dotore jantzita, Maritxu-

ri merezitako jaia eskaintzera. Goizean herritarrak baino ez zebiltzan arren, arratsalderako Bartzelonatik ere iritsi ziren autobusak.

MIRARIA

Jendez gainezka zegoen Arrasateko plaza 19:00etarako, miraria noiz gertatuko zain zeuden-eta guztiak. Bitartean, erraldoiek eta txarangak alaitu zuten giroa.

Preso eta iheslariak jaia ospatzeko gurean ez daudela gogoratu eta gero, zerutik postalak hasi ziren jausten: zazpi postal ezberdin, Arrasateko zazpi *mirarien* argazkiekin: Laubideko eraikuntza, Saiolango biribila...

(24. orrialdean jarraitzen du)

Gaupasa Maritxuren zaintzapean

(23. orrialdetik dator)

BAZKARIAK

Ohitura da, Maritxu egunean, koadrila batu eta afaltzera joatea. Azken urteotan, ordea, goizean eusten diote jaiari, eta, afaldu ordez, bazkaltzera joaten dira gehienak. Kaleetan igarri zen ohitura aldaketa hori, bazkalostetik arratsalde partera arte inor gutxi ikusteko aukera izan bainuen. Hainbat jatetxetako arduradunek esan ziguten lehena gozatu betetzen zituztela jangelak bazkaritan afaltzeko orduan baino, eta hala gertatzen ari dela azken bost urteotan.

GIRO BIKAINA

Arratsalde partean, zerua ilun samar zegoen arren, giro polita egin zuen. Euririk ez egiteak ere asko lagundu zuen, eta tabernetan baino gehiago, kalean pilatu zen jendea.

Monterron parke azpian jarrita zegoen karpa ere, jendez gainzka egon zen denbora guztian. Egurdiko hamabiak aldera itxi zuten, eta ordura arte, pertsona ugari ibili zen gaupasa eginda Arrasateko kaleetan zehar. Bat baino gehiago lo geratu zen arbolapetak bankuetan.

Egun horrek duen arrakasta ikusita, San Fermin baino ezagunago bilakatuko da Maritxu!



KONPARTSA TXIKIA Maritxutan lehen aldiz atera zen kalera.

IMANOL SORIANO



POSTALAK Umeak, Maritxuk botatako mirarien postalak jasotzen.

IMANOL SORIANO



DANTZALDIA Giro ona sortu zen Izotz taldearekin Herriko plazan.

JOSETXO ARANZABAL



ARETXABALTARRAK Inguruko eta kanpoko jendea, jaia ospatzen.

JOSETXO ARANZABAL



Astakiloen abenturak

8 liburuz osatutako ipuin bilduma



Patxiku, Olegario, Mikel eta Josetxo astakiloen abenturekin gozatu duzue!

Bernardo Atxagak idatziak
Marrazkiak: Jokin Mitxelena

**Urriaren 6tik aurrera,
larunbatero BERRIAREKIN!**



Liburu guztiak erosiz gero, astakiloen marrazki bizidunen **DVDa opari!**

Babesleak:

6 abentura biltzen ditu. 60 minutuko iraupena du.

OTOÑO 2007 ko udazkena.

Guztia da moda Boulevardean.

Badakizulako moda, arropa baino askoz gehiago dela.

Moda zentzu guztietan eskatzen duzulako, **Boulevardean guztia moda dela** badakizulako,



www.el-boulevard.com



Elgeta-Piel

*Udazken eta
neguko moda*

Domingo Iturbe 8

ELGETA

Tel.: 943 76 81 12

Martitzenetik zapatura:

10:30-13:00 eta 17:00-20:00.

Domeketan:

11:00-13:30.

Astelehenetan itxita.

BERTSOLARITZA > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Azken kanporaketen ostean, Ainhoa Agirreazaldegi bakarrik final laurdenetan

Nahikari Gabilondo zarautzarrak irabazi zuen Elgetako kanporaketa

Asteburuko saioetan, Eñaut Uriartek eta Jokin Labaienek jardun zuten bertsoetan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Zapatuan jokatu ziren Gipuzkoako Bertsolari txapelketako lehen faseko azken kanporaketak. Bertsoetan Debagoieneko bi ordezkariak jardun zuten: Eñaut Uriarte bergararrak Elgetan, eta Jokin Labaien arrasatearrak Getarian.

Espaloiko taula gainean, Uriarterekin batera, Manu Goigana, Egoitz Alkorta, Alaia Martin, Xabi Astigarraga eta Nahikari Gabilondo izan ziren.

Saio oso gorabeheratsua izan zen Elgetakoa. Amaieran, puntu gehien lortu zituen Nahikari Gabilondok, eta ia saio osoan barrena orekatu ibili zen; gaitzuek, ordea, lan batean edo bestean huts egin zuten.

Zortziko nagusian saioari ekiteko indar pixka bat falta izan zitzaion gehienei. Txikian, entzuleen barreak eragin zituz-



OFIZIOTAN Eñaut Uriartek hamarrekotxikian Nahikari Gabilondo saioko irabazlearekin jardun zuen ofiziotan. IRATI AGIRREAZALDEGI

ten hainbat bertsoak: Egoitz Alkorta eta Eñaut Uriarte parranda eta ligatze kontuetan ipini zituen gai jartzaile Iker Iriartek, eta umoretik jo zuten. Bide beretik heldu zioten zortziko txikikoari Alaia Martinek

eta Xabi Astigarragak. Hauek bikotea ziren, eta mutila janaria gertatzen hasita, erre egin zitzaion.

Hamarrekotxikian, tonu serioagoa hartu zuen saioak, baina entzun zen ideia politik.

KARTZELAKOA

Bi punturi erantzun behar izan zieten lehenengo. Ondoren, hiru berto bota zizkieten denek gai berari. "Polizia zara. Gaur zure eginkizunak bukatu eta gustura bueltatu zara etxera", esan zien

gai jartzaileak. Polizia lanetan denak, baina bakoitzak jardun ezberdinean ipini zuen bere burua. Egoitz Alkortak polito jardun zuen, baita Alaia Martinek ere, eta saioko bere bertso onenak ez izan arren, Nahikari Gabilondok ere lan txukuna egin zuen kartzelakoan. Lanak amaituta, hasierako agurrean aipatu zuen modura, semaforoa berde ipini zitzaion hurrengo fasera pasatzeko. Elgetako saiotik berak bakarrik egin zuen aurrera.

Uriartek lehen aldian zuen txapelketan eta, urduritasuna medio, hainbat huts egin zituen arren, gustura jardun zuela esan zigun.

LABAIEN TXUKUN

Getarian zuen kanporaketa Jokin Labaien arrasatearrak. Lan txukuna egin ostean, saioko bigarrena izan zen, baina ez du aurrera egingo, Getariako puntuazioak beste saio batzuetakoak baino baxuagoak izan baitziren.

FINAL LAURDENAK

Hortaz, ibarra ordezkatzuz, bertsolari bakarra izango dugu final laurdenetan: Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra, hain zuzen ere.

Urriaren 27an izango da Agirreazaldegiren txanda, Eibarko Coliseo Antzokian, 18:00etan.

Ibarrean txapelketako hurrengo saioa Eskoriatzako final erdia izango da, azaroaren 17an, 18:00etan, kiroldegian.



JOSETXO ARANZABAL

Herri Egunean, eguraldi tristeari aurre eginez, giro paregabea Oñatin

Zapatuan, eguraldia, hasieran, lagun ez izan arren, Herri Egun arrakastatsua ospatu zuten Oñatin. Goizean, ganadu, fruta eta barazki azokek jende ugari erakarri zuten arren, sagardo-dastatzeak izan zuen arrakasta handiena. Ondoren, herri bazkaria, eta gauean, Tapia eta Leturiak txosnetan eskainitako kontzertuak bildu zuen jende gehien.

Gaur, mozorrotuta eta musikarekin agurtuko dituzte San Miguel jaiak txantxikuek: Eganek joko du plazan, eta Los seductores-ek, txosnetan.

> MUSIKA

Musika elektronikoa, rock-and-rolla eta heavya nagusi, oraingo udazkenean, Debagoienean

Hilabetea bero-bero dator, musikari dagokionez. Estilo ezberdinetako kontzertuetaz gozatzeko aukera izango du ibarrera gerturatzeko den edonork. Joan den asteburuan ospatu zen 3.60 aretoan 3. Elektrik Fridays jaia; sekulako arrakasta izan zuen, antolatzaileen esanetan. Jam aretoan ere, musika elektronikoa bere tarte emango diote astebukaera guztietan.

Bestalde, Jamen heavy taldeek hartuko dute protagonismoa, eta Skid Row eta Apocaliptica taldeak dira gonbidatu aipagarrienetakoak. 3.60an, berriz, rocka da nagusi oraingoan ere. Aurreko urteko esperientzia ahaztezina kontutan hartuta, Roy Loney Señor No taldearekin batera arituko da urriaren 27an.

> PINTURA

Antzuolako karlistek berrikutu zuten Simon Arrietaren oihal bat zaharberitu egino dute

Simon Arrieta pintore bergararrak margotutako Antzuolako batzokiaren ekitaldi-aretoko oihala zaharberitu egino dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Oihala, Espainiako Gerra aurretik, erakunde jeltzalean eskaintzen ziren antzezpenen hasiera eta amaierak egiteko erabili ohi zuten. Jatorriz, dantzari bikote bat ikurrinarekin agertu arren, gerra garaian, karlistek, Espainiako bandera ipini zioten ikurrinari gainetik. Mutilaren txapel beltza ere, gorritz margotu zuten.

Simon Arrieta Arostegi 1915ean jaio zen Bergaran. Gipuzkoako artista berrien 12. sariketako lehenengo saria lortu zuen, eta Espainia eta Euskal Herrian kritika ezin hobea izan zuen bere lanak.



GOVERNORS

"Governors da 13 urteotan egin dudanaren laburpena"

Juan 'Odola' musikariak egin ditu musika eta abestien hitzak, kolaborazio batzuekin; "ipurterrea" dela onartu digu

laz ekin zion Juanek maketa grabatzeari; gero, taldekideak bilatu zituen eta, lana borobiltzen hasi zenean, diskoa atera zuten

MAIER URANGA > ARRASATE

Arrasateko Governors taldeak, Oihuka diskoetxearekin, estreinako diko kaleratu berri du. Juan *Odola* taldeko partaide eta bultzatzaile nagusia. Barikuan diskoa aurkeztu, lana egin, eta gero, berarekin egin genuen hitzordua. Esan zigunez, Euskal Herrian rock-and-rollak ez du dirurik ematen...

Itxaron beharra ez da itxaropena da diskoaren izena. Zuek asko itxaron behar izan duzue diskoa ateratzeko orduan?

Ez gehiegi. 2006an ekin nion maketak grabatzeari; hasieran, ni bakarrik aritu nintzen, gero taldekideak bilatu... eta guztia borobiltzen hasi zenean, diskoa atera genuen. Beharrezko denbora soilik hartu dugu.

Zenbat lagun zarete taldean?

Lau. Heloy baterian, Aitor gitarran, Beñato baxuan eta ni ahotsa.

Hainbat taldetan aritu izan zara: Ekon, Fjord, Brutal... Oraingoan, ze musika estilo jorratzen duzu Governors-ekin?

Hori kritikoentzat uzten dugu, beraiek esan dezatela...

Talderen batekin konparatzen duzu?

Ba ez dakit. 13 urte hauetan egin edo ikasi dudaren laburpena izan daiteke Governors. Orain arte egindakoarekin antzekotasunak izango ditu, baina badago ukitu berririk ere. Izango duzue gozatzeko aukera.

Arrasatearrak izateko, ezohiko taldea dela esan dezakegu zuena. Punka, oi-a entzutera ohituta gaude inguru hauetan...

Bai, Arrasate punkaren sorlekua dela esan dezakegu. RIPetik hasi eta gaur egungo Arkada Social edo Des-kontroleraino... Baina, hain bereziak ere ez gara; badago rock edo metal talderik ere... Uste dut denetik eskaini behar zaiola entzuleari, denetarik gustuak baitaude.

Nork sortzen ditu musika eta letrak?

Nik neuk. Letrak egiterako orduan, badaude pare bat lagunen kolaborazioak ere.

Artista zara orduan?

Artista baino gehiago, ipurterrea naiz ni.

Diskoaren ekoizpenean ere izan duzu zerikusirik?

Bai, aurrez atera ditudan diskoetan ere, ekoizpena SAKO Jimyk eta biok egin izan dugu; baina berak hartzen zuen lanaren pisu handiena. Oraingo disko honetan, hamaika abestitik, berak sei eta nik bost ekoiztu ditugu.



Disko borobila, abesti on eta landuekin

Itxaropentsu behar luke Arrasateko laukoteak disko hau kaleratu eta gero.

Esperientzia eta heldutasunaren emaitza ezin hobea da Governors taldearen lehenengo diskoa; adituen arabera, belarri finentzat egindako kalitatezko musika ezin hobea. Disko borobila da, melodia eta erritmo txundigarriekin, eta abesti on eta landuekin; nabari da, bai, urteek emandako esperientziaren emaitza dela.

Desiratzen gaude zuzenekoetaz gozatzeko!

Maier Uranga

Bateria-jole, abeslari, ekoizle... zer nahiago?

Abestea eta bateria jotzea, biak ditut gustuko. Fjord-ekin jotzeari utzi nionetik ere, beste talde batzuetan ibili izan naiz baketak astintzen. Baina egunak 24 ordu baino ez dituenez, ez dit gehiagorako astirik ematen. Denbora falta zait gogoko dudana guztia egiteko.

Denbora aprobetxatzen duzue, behintzat; Irlandan ere ibili zarete kontzertuak ematen.

Bai, oso gustura, gainera. Sarri joaten naiz bertara. Bani-tuen kontzertuak antolatzeko kontaktu batzuk ere, beraz, primeran!

Oso ondo etorri zitzaigun talde moduan kofiantza hartu eta elkar ezagutzeko. Garagardoak ere asko laguntzen du horretan, eta irlandakoa paregabea da! (Barre).

Eta nondik nora ibili behar zarete kontzertuak ematen?

Urriaren 26an, Tolosako Bonberenean izango gara; 31en, Bilboko FNACen; Arrasaten, 3.60 aretoan, azaroaren 10ean; eta Latzenekin, Bilboko Kafe Antzokian, azaroaren 22 eta 23an.

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Ikasketak.** Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. 2007/2008 ikasturtean ikasketak euren autonomia erkidegoan egiten dituzten ikasleentzako bekak, unibertsitatekoak ez diren entzatzat eta unibertsitatekoak diren entzatzat Epea: urriaren 31.

> **Masterrak.** Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Unibertsitateko master ikasketen kostua finantzatzeko maileguak. Epea: 2008ko uztailaren 31.

IKASTAROAK

> **Gizarte trebetasunak.** Hezkide Eskola. *Gizarte Trebetasunak, nola hobetu pertsonen arteko harremanak.* 9 ordu. Epea: azaroaren 14a.

> **Sexu-Hezkuntza.** Urtxintxa eta Bezain Psikologia eta Sexologia Zentroa. Sexu Hezkuntzako eta Familia Orientabideko monitoreen ikastaroa. 100 ordu. 2007ko urritik 2008ko ekainera arte. Epea: urriaren 21a.

> **Aisialdia.** Larrunarri Scout Eskola. Haur eta Gazteen Aisialdi Begirale eta Zuzendari izateko ikastaroak. Epea: urriaren 12a.

LEHIAKETAK

> **Blogak.** Elhuyar Fundazioa. Teknoskopia 2007 ideia-lehiaketa. Parte-hartzaileak: Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak. Gaia: Zientzia eta Teknologikoak blog bat sortzea. Epea: urriaren 31.

> **Artea.** Gipuzkoako Arte Elkar-tea. Pintura lehiaketa. Gaia eta forma-tua libreak izango dira. Epea: urriaren 15era arte.

LANA

> **Erizainak.** Bergarako Udala. Mizpirualde zaharren egoitzan erizainlanpostu bat betetzeko eta lan-poltsa bat sortzeko oposizio-lehiaketa. Epea: urriaren 10a.

> **Udalekua.** Irungo Udala. 2008/2009 urteetako udal udalekueko programaren kudeaketa kontratatzeke lehiaketaren deialdia. Epea: urriaren 16a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzu@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Etxebizitza salgai, Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

Arrasate. Etxebizitza salgai Grupo San Juanen. 60 m². Igogailua, ganbara eta sotoa. Azkenea solairua. 619 25 46 69.

Arrasate. Gorostiza auzoan (Malvinak). 77 m². Guztiz berritua. Hiru logela, egongela, bi bainu-gela, sukaldia, patio ingelesa, sotoa eta garajea. 607 72 75 63.

Arrasate. Zigarrollan etxea salgai. Behoko solairua, 48 m². Berritua. 200.000 euro. Telefonoa: 665 73 25 74.

Bergara. Etxebizitza saltzen da Zubiaurren, guztiz berritua, ganbara eta berogailuarekin. Telefonoa: 619 41 39 72.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Bi logelako etxebizitza ematen da errentan, erdialdean. Berogailua eta igogailua. 618 20 31 85.

Bergara. Etxebizitza ematen dut errentan, Bolun. 20:00etatik 22:00etara deitu. Deitu ezazu telefono honetara: 943 76 07 89.

Eskoriatza. Etxebizitza alokagai daukat. Hiru logela ditu eta berogailua dauka. Ikasleentzako aukera aproposa. 18:00etatik aurrera deitu. Deitu ezazu telefono honetara: 617 80 26 19.

Vera (Almería). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. Deitu ezazu telefono honetara: 657 73 94 25.

Villanua (Huesca). Apartamentua errentan ematen da. Deitu 20:00ak eta 22:00ak bitartean. Deitu ezazu telefono honetara: 615 78 78 41.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com
http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ). GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

104. ERRENTAN HARTU

Bergaran etxe konpartitua errentan hartuko nuke. Telefonoa: 943 78 70 16.

Oñati etxebizitza bila nabil errentan hartzeko. Neska euskalduna naiz, seme batekin. 666 74 14 33.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Gela bat alokatu nahi du neska batek. 629 40 33 68.

Bergara. Etxebizitza osatzeko bi pertsona behar dira. Andoni. 605 76 98 97.

Bergaran edo Arrasaten. Telefonoa: 943 78 70 16.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Trastelekua salgai Zurraderon, motorra gordetzeko egokia. Neurriak dira 5,80x1,80. Prezioa: 8.000 euro. Deitu 18:00etatik aurrera. Telefonoa: 678 43 31 07.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Buztin zuri kalean. 638 89 78 76.

Arrasate. Garajea errentan ematen dut Roneon. 615 70 22 68.

Oñati. Garajea errentan Olakua 18an. Deitu ezazu telefono honetara: 659 38 66 29.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. 72 m² dituen lokal bat errentan ematen da Anboto kalean. Ura, argia eta komunak ditu. 607 44 35 46.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Pabiloi industrialak alokatzen da autokarabanan edo karabanak sartzeko. Telefonoa: 635 70 38 16.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakumea behar da etxe lan egiteko. Esperientziarekin. 669 53 97 03.

Bergara. Pertsona bat behar da gaztelaniazko eskolak emateko. 629 33 26 34.

Debagoiena. Neska euskalduna behar da arratsaldean umek zaintzeko. 647 37 20 48.

402. ESKAERAK

Arexabaleta. Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. 6 urteko esperientzia. Feli. Telefonoa: 943 53 33 92.

Arrasate. Emakumea gertu adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lan egiteko. Telefonoa: 652 76 65 06.

Bergara. Neska bat nagusiak zaintzeko edo etxe lan egiteko gertu. 639 02 00 81.

Debagoiena. Neska gaztea garbiketa lan egiteko prest. 619 92 40 86.

Debagoiena. Emakumea gertu sukaldari edo sukaldari-laguntzaile jarduteko, baita garbiketa lan egiteko ere. Telefonoa: 660 36 44 99.

Debagoiena. Etxeko lan egiteko nituzke, orduka zein egun osoz. 638 38 93 42.

403. BESTELAKOAK

Arropa lisatzen dut. Dagokion lekuan batu, neure etxean lisatu eta entregatu egiten dut. 656 75 04 43.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Mutila edo neska behar da DBHko 4. mailako ikasle bati eskola partikularak emateko. 696 33 47 72 edo 943 79 17 45.

502. EMAN

Arexabaleta ingelesko klaseak ematen dira. 943 79 03 83.

Bergara. Zientzietako gaietan arazoak? DBHko 3. mailatik gorako maila guztiak (unibertsitatekoak ere). Telefonoa: 615 75 82 54.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroen C4 Coupe beltza salgai. 138 ZP. Diesela. 55.000 km. Estra guztiak. Oso egoera onean. Deitu ezazu telefono honetara: 627 93 55 74.

Honda CB 600F motorra salgai. 25.000 km. 4.200 euro. Telefonoa: 699 37 15 11.

Jeep Cherokee. 2.1 turbo diesela salgai. Oso egoera onean. 3.500 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 655 45 07 25.

KTM Enduro 450 EXC. 2004koa. Mendiko motorra. 646 05 74 78.

Volkswagen Sharan. 1.800 cc. 1999koa. Oso egoera onean. 6.500 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 645 73 97 69.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Yorkshire Terrier arrazako hiru txakurkume saltzen ditut. Erika. Deitu ezazu telefono honetara: 697 20 67 85.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Automobilerako umearendako eserlekua salgai. 943 79 41 31.

Baxu amplifikagailua salgai. Trace Elliot (Combo) markakoa. 300 v. 700 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 639 27 25 56.

Egurra saltzen da. Bi kamioikada egur sutarako gertu. Telefonoa: 945 44 51 11.

Ordenagailuarendako mahai, hiru plazako sofa eta 1,05 metroko oherako koltxoia salgai. Egoera onean. Merke. Deitu ezazu telefono honetara: 625 70 69 98.

Soldatzeko makina salgai. 600 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 655 45 07 25.

Teleskopio salgai. Astrolon. Potentzia: 402. 943 79 41 31.

Tronpeta bat salgai daukat eta Berri-berria dago. Deitu ezazu telefono honetara: 943 78 70 52.

Ume-kotxa salgai, bikiendako. Jane Twin Two markakoa + 2 Matrix Pro. Sei hilabete erabilita eta egoera oso onean. Deitu ezazu telefono honetara: 645 00 99 35 edo 636 51 54 79.

802. EROSI

Hezetasuna kentzeko makina erosiko nuke, bigarren eskukoa. Deitu ezazu telefono honetara: 628 77 55 86.

806. GALDU

Arrasate. Urre zuriko eskumuturrekoa galdu nuen abuztuan. Seber Altubien edo Herriko Plazan galdu nuen. Balio sentimental handia du. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 13 68.

808. BESTELAKOAK

Gasteiz-Bergara ibilbidea aste-gunetan, egunero, automobileren egiten duen norbaitekin jarri nahi nuke harremanetan, bidaia-gastuak konpartitzea asmoz. Deitu ezazu telefono honetara: 645 70 03 55.

Enpresa eraikitzaile eta promotore batek OBRA TEKNIKARIA behar du Arrasateko obra baterako.

Obra-buruaren aginduetara lan hauek egin beharko ditu:
neurketak, ziurtagiriak, eskaintza eskaerak, obren jarraipena...

Lanpostu honetarako baliagarriak diren titulazioak hauek dira:
arkitekto teknikoak, ingeniari teknikoak edo goi mailako ingeniariak.

Baloratuko da:
Esperientzia eta Debagoienean bizi izatea.

Soldata pertsona bakoitzaren balioaren arabera izango da.

Interesatuok deitu telefono honetara:
690 629 869

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

IKUS-ENTZUNEZKO TEKNIKARIA behar du

Baldintzak:

- Euskaraz jakitea.
- Errealizazio, irudi edo soinu teknikari tituluduna izatea, gutxienez.

Baloratuko da:

- Esperientzia izatea.
- Informatikako programak erabiltzen jakitea.
- Atzerriko hizkuntzak jakitea.
- Goi mailako titulazioa izatea.

Interesatuok bidali curriculumara,
2007ko urriaren 12a baino lehen, ondoko helbidera:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
edo admi@goiena.com



Urriaren 8a:
145. zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, urriak 8, egin den zozketako saridunak aspiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Astelenehenko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeuren izen zaitzake hurrengo zozketako irabazleetako bat!

Saridunak

ELGETAKO ESPALOIAN urriaren 11n izango den Yllana taldearen *Pagagnini* antzezlanerako lau sarrera (irabazle bakoitzari bi emango zaizkio).

- Iñaki Urrutia Orobengoa (Arrasate)
- Victoria Uriarte Antxia (Elgeta)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

146. zozketako saria

ELGETAKO ESPALOIAN urriaren 19an izango den *Antzerti* Maitaleak taldearen *El repertorio gitano* (Garcia Lorcaen olerkietan oinarrituta) dantza-antzerki ikuskizunerako lau sarrera (irabazle bakoitzari bi emango zaizkio).

Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

18 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 8



> **'Harmailatik'-en eskubaloibolako derbia landuko dute 21:47**

Xabier Urtzelai kazetari arrasateararen eskutik, Ford Mugarrik eta Bergarak zapatuan jokatu zuten eskubaloibolako derbiko une onenak.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ilunpean.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Berbaire.
16:15 Berbaire.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ikusmira.
18:15 Ikusten.
18:45 Berriak.
19:15 2x2.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Harmailatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea.
22:15 Kirolari.
22:45 Berriak.
23:15 Harmailatik.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Klipa.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 9



> **Bergarako kilometroen gaineko saioa 21:47**

Domekan Bergaran ospatu zen kilometroen gaineko saio berezia izango da gaur; han gertatuko guztia- ren berri emango digu GOITBk.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Harmailatik.
14:45 Berriak.
15:15 2x2.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Klipa.
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Harmailatik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Horry.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 KMK07 Bergara.
22:15 Animaliak.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 10



> **San Miguel eta Maritxu jaiak GOITBn 21:47**

Saio berezia eskainiko dute gaur; Oñatiko San Miguel eta Arrasateko Maritxu jaien gaineko saioa izango da. Jaia eta umorea GOITBn.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 KMK 07.
14:15 Eltze berioa.
14:45 Berriak.
15:15 Ur eta lur.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Animaliak.
16:15 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 2x2.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Berriak.
20:15 Zaharrak berri.
20:45 Berriak.
21:15 Maritxu kajoi 07.
21:45 Gaurkoak.
21:47 San Migelak 07 Oñati.
22:15 Ur eta lur.
22:45 Berriak.
23:15 Teknopolis.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Jazmina.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 11



> **Kilometroetako kontzertuak, 'Musikantoin' 21:47**

Musikantoi indartsu datorri- gu. Maider Arregi kazetari oñatiar- ren eskutik, domekan kilometroetan izan ziren kontzertuen berri.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Zaharrak berri.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Marazki bizidunak.
14:15 Maritxu kajoi 07.
14:45 Berriak.
15:15 San Migelak07.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Ur eta lur.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak: Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Kirolari.
18:45 Berriak.
19:15 Erreportajea.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Horry.
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire. Donostiako Zinemaldia.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire. Donostiako Zinemaldia.
22:15 Musikantoi.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusten.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Ilunpean.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 12



> **Juan Luis Zabala 'Ilunpean' saioan izango da 21:47**

Iker Barandiaranek gonbidatuta, Juan Luis Zabala kazetari eta idazle azkoitiarra izango da *Ilunpean*-en; *Berria*-ko kultura arduraduna da.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Musikantoi.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ikusten.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Eltze beroa.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 San Migelak 07.
18:45 Albisteak.
19:15 Erreportajea.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Kirolari.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Musikantoi.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> **Igo autobusera: neguko programazioa 10:00**

Uda joan zaigu, eta baita *Uda Giroan* saioa ere. Datorren astetik aurrera, neguko programazioa hasiko dute Arrasate Irratian; besteak beste, kulturak tarte berezia izango du Arrasate Irratiko uhinetan, *Igo autobusera* saioan.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketa
Lorategiaren geltokia:
Bergarako Gorosti loradendako Irene Zenitagoiarekin
Opariak. Kultura ekitaldietako sarrekerak eskuratzeko aukera Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra
17:15 Zorion agurrerantzea(errep.)

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua
Asteko berri eta elkarrizketa onenak gogoratuko dituzte

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua
Asteko berri eta elkarrizketa onenak gogoratuko dituzte

gertutik



Adela Gonzalez
Kazetaria

"Politika gaiekin, adibidez, solaskideak berotu egiten dira"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Kazetaritza ikasketak bukatu eta Radio Euskadin hasi zen Adela Gonzalez, bekadun bezala. Gero, EFE agentzian ere ibili zen, han ere bekadun. Lana egiteko gogoz, Ciudad Realera joan zen, aldiakari batera. Hainbat tokiko telebistan ibili zen, ETBra saltoa egin aurretik. *Euskadi Directo*, *LQF* eta *LQF Mojate*-n ibili eta gero, orain, *Pasalo*-ko aurkezlea da Adela Gonzalez.

Samurra da *Pasalo*-ko mahaian ordena jartzea?

Solaskideek badakite noiz berba egin daitekeen eta noiz ez. Hala ere, batzuetan, solaskideak berotu egiten dira eta denak batera berba egiten hasten dira. Politika gaiekin, adibidez, hori gertatzen da.

Baina, egia esan, gure solaskideek jarrera ona erakusten dute, eta ez da arazorik izaten; hala ere, noiz-bait ordena jarri behar izaten dugu.

Telebistan, Iñaki Lopez duzu bikoitekide. Pantailan ikusten den bezain ondo moldatzen zarete?

Telebistan baino hobeto moldatzen gara kalean. Egia esan, oso harreman ona dugu, eta hori nabaritu egiten da telebistan. Gainera, hainbeste ordu batera egoteko, ezinbestekoa da ondo moldatzea! Bestalde, txantxak egiteko orduan, bada-kigu noraino iritsi ahal garen; elkar ondo ezagutzen dugu.

LQF programan prentsa arrosa landu zenuen; orain, gai sozialak lantzen dituzu. Zer da erosoagoa?

Garai hartan, *LQF* programa ona zen; umorearekin lantzen genituen bihotzeko kontuak. Orain, berriz, oso nahasia dago prentsa arrosa. Niretzat, zailagoa da pertsonai famatuiei euren bizitzari buruz galdetzea; orain lantzen ditugun gaiak, adibidez, samurragoak eta interesgarriagoak direla iruditzen zait.

Etorkizunean, ze programa mota egitea gustatuko litzaizuke?

Orain, adibidez, Radio Euskadin, eguenetan, Xabier Lapitzen saioan tarte bat izaten dut. Nire hasierak irratan izan ziren; oso gustuko dudana hedabidea da. Telebistari dagokionez, goizetan izaten diren programak gustuko ditut; baina, hainbeste politika sartu gabe.

asteko hitzorduak

Bazkaria



OÑATI
> **Errosarix bixamon eguneko paella jana egingo dute gaur txosna gunean**

Errosarix bixamon eguna ospatuko dute gaur Oñatin, jaietako azken eguna, hain zuzen. Ekitaldien artean, paella jana egongo da Oñatiko txosna gunean; bazkaria Laixanek eta Txosnek antolatuta dute.

Erakusketa



ELGETA
> **'TMEO' aldizkariaren azalak ikusgai daude Elgetako Espaloia antzokian**

Urriaren 28ra arte egongo dira ikusgai *TMEO* aldizkariaren azalak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Guztira, aldizkari satirikoan argitaratutako 39 azal daude ikusgai; azalak 2006. urtean agertutakoak dira.

Erakusketa



BERGARA
> **Esther Galarzaren zeramikak ikusgai egongo dira Aroztegi aretoan**

Hilaren 28ra arte ikusi ahal izango dira eibartarraren obrak Aroztegin. Esther Galarzaren erakusketak *Disonante Armonia* du izena eta, bertan, artistak formatu askotariko lanak aurkezten ditu.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Dagoeneko,
argi
daukazu?

Aste bukaera luzea izan da gurean; batzuek astelehena izango dute gaur. Beste batzuek, berriz, bihar izango dute bixamonaren bixamona. Oñati aldean, gehienbat.

Egun handia ospatu zuten atzo Bergaran: kilometroak. Inagurazio ekitaldi polita egin zuten bergararrek. **Monika Belastegi** gure lankideak aurkeztutako omenaldia ohi baino originalagoa izan zen. **Mikel Laskurain** aktore bergararrak hartu zuen hitza zenbait unetan: halako batean, *alkate jauna* deitu zion Laskurainek Bergarako alka-

"Lehendakaria ez
zen txandal zuri-
berdearekin eta
txapel gorriarekin
etorri Bergarara"

teari. Bergarakoa, baina, ez da jauna, anderea baizik. Beste hainbat galdera ere egin zituen Laskurainek. Argi ez zituen hainbat gauza argitzeko edo...

Egubakoitzean, bertso ekitaldia izan zen Oñatin. **Egoitz Aizpururi** lekukoa hartu zion **Pascu**-k gaiak jartzeko orduan; baina, bertsolariak aurkezterako garaian, **Irazuren** izena ahaztu zitzaion gai jartzaileari. **Jexux Mari** da. Argi daukazu?

Bestalde, egubakoitzean bertsotan iragarri bazuten ere, azkenean, **Lehendakaria** ez zen Bergarara txandal zuri-berde eta txapel gorriarekin etorri. Beste batean, agian. Eta saunara, nola joango da? **Igor Elortzak** bezala, *mixto y no visto* egingo du?

hildakoak

- **Florentino Uribesalgo Irazola.** Arrasate. Urriaren 6an. 70 urte.
- **Manuel Pousa Cerviño.** Arrasate. Urriaren 6an. 89 urte.
- **Sebastian Bengoa Segura.** Eskoriatza. Urriaren 6an. 72 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia:
egubakoitzeko eta astelehenerako
GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero,
100 euro.

GOIENKARIA: astero, 45.000 irakurle.

asteburuko albuma



Adituekin perretxikotara. Elgetako 20 laguneko talde bat plazan elkartu zen zapatu goizean perretxiko bila joateko. Perretxiko mordoa jaso zuten, jatekoak batzuk eta txarrak besteak. Ondoren, plazan, perretxikotan adituak diren lau elgetarren laguntza izan zuten onddoak sailkatzeko; egunean bertan jasotakoak zein aste barruan eurek batutakoak. Jose Antonio Irazabal, Alexander Arantzabal, Alejandro Cristobal eta Pello Gorrotxategik eman zizkieten perretxikoen gaineko azalpenak neska-mutikoei eta gurasoei. Plazan ipini zituzten gero herritarrek ikusteko, latinezko zein euskarazko izenekin, eta jatekoak ziren ala ez adieraziz. Jatekoak, noski, banatu egin zituzten bertaratutakoaren artean, gero etxean bakoitzak bere erara gertatzeko.



Kataluniako eta Nafarroako doinuak gurean. Kataluniarrak dira Intifada musika taldekoak; Bartzelonako Osona bailarakoak, hain zuzen ere. Bergarako Emon taldea udan izan zen Osonako Tona herriko jaietan kontzertua ematen, Intifadakoek gonbidatuta, eta oraingoan, kataluniarrek bisita bueltatu diete bergararrei. Hala, zapatu gauean, Sakanako Hesian taldearekin batera, kontzertua egin zuten Bergarako Munibe plazan. Nafarrak punk-rock eta hardcore melodikoaren artean mugitzen dira, baina ska soinuak ere eskaini zituzten. Intifadakoek ere rocka eta ska uztartu zituzten, han batutako bergararrak dantzaz jarriz. Kontzertua bukatu eta gero, Intifadakoek Emoneko kideekin eta hainbat lagunekin argazkia atera zuten, oroigarri modura etxera eramateko.



Erretiratuei omenaldia. Aretxabaletako erretiratuek omenaldia jaso zuten zapatuan Udalaren eskutik. Basotxo elkartearen salda hartu ostean, meza entzun zuten erretiratuek, eta bazkaloruan 260 lagun jesarri ziren kirol etxean euren propio gertatutako mahaietan. Bazkaldu ondoren, dantzaldia izan zen, Ludi-Berri taldeak alaituta. Gainera, erretiratu guztiek opariak jaso zituzten: irratitxo eta linterna bana. Hala ere, opari bereziak izan ziren herriko nagusienendako. Otsailean 96 urte bete zituen Elesgarai baserriko Margarita Lasagabasterrek alkatearen eskutik lora sorta eta xal bat jaso zituen. Gizonen artean, Aretxabaletako edadetuena Joaquin Barbero da: abenduan beteko ditu 101 urte. Barbero Urats-Gain egoitzan bizi da, eta bazkaritan izan ez bazen ere, egoitzara bertara eramango diote oparia gaur, astelehena.



PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com

zorion agurrak



ARRASATE
Juan Pablo Zapata
Urriaren 1ean,
7 urte. Familiaren
eta lagunren parte-
tik, zorionak.



ARRASATE
Unai Laskurain
Urriaren 4an,
5 urte. Zorionak
Arizmendi Sanvi
Txikikoen eta tio
Aitor, Nani eta
amama Edurneren
etxearen partetik.



ARRASATE
Lorea Etxabe
Urriaren 2an,
5 urte. Zorionak
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunren
partetik.



OÑATI
Axier Santxez
Urriaren 2an, urte-
betetzea. Zorionak,
baltz!



ARRASATE
Iñigo Gandarias
Urriaren 3an,
5 urte. Zorionak
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunren
partetik.



ELGETA
**Martxel
Azkorbebeitia
Larrañaga**
Urriaren 4an, urte-
betetzea. Zorionak
eta muxu handi bat
gurasoen eta anaia
Unaxen partetik.



ARRASATE
Ibai Urizarren
Urriaren 5ean,
3 urte. Zorionak
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunren
partetik.



BERGARA
Joshelin Muñoz
Urriaren 6an,
15 urte. Zorionak,
polita! Familiako
partetik.



BERGARA
**Joseba Elorza
Garitano**
Urriaren 6an,
11 urte. Zorionak,
txapeldun! Segi
hain jatorra izaten.
Muxu handi bat,
etxearen partetik.



BERGARA
**Ibon
Muniategiandikoetxea**
Urriaren 6an.
Zorionak etxearen
partetik! Ondo
pasatuko zenuen
Kilometroetan,
ezta?



ARRASATE
Ibai Ruiz de Austri
Urriaren 7an,
4 urte. Zorionak
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunren
partetik.



ARRASATE
Lide Zubia
Urriaren 8an,
3 urte. Zorionak
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunren
partetik.




OÑATI
Alaia Perez
Urriaren 8an, urte-
betetzea. Zorionak
potola! Ondo pasau
eta muxu handi bat,
lagunen partetik.



OÑATI
Gotzon Osinaga
Urriaren 8an, urte-
betetzea. Zorionak
eta urte askotarako,
aitona! Eneritz,
Malen eta Auritzen
partetik, muxu
handi-handi bat.



ARRASATE
**Eider Abarrategi
Garai**
Urriaren 9an,
3 urte. Zorionak
familiako guztien
partetik!



ARRASATE
Imanol Juaristi
Urriaren 10ean,
urtebetetzea.
Zorionak Arizmendi
Sanvi Txikiko lagu-
nen partetik.



OÑATI
**Sara Isasisasmendi
Egaña**
Urriaren 10ean,
4 urte. Zorionak
eta pa haundi bat
etxe eta familia-
kuan partetik.




ARRASATE
Alejo Mellado
Urriaren 10ean,
urtebetetzea.
Zorionak, bulegoko
lankideen partetik.



BERGARA
Arritxu Barruso
Urriaren 11n,
25 urte. Zorionak,
guapisima, zure
lankideen partetik!



ARRASATE
**Joxefe
Diaz de Tuesta**
Urriaren 12an, urte-
betetzea. Zorionak
eta ondo-ondo pasa
eguna!



ESKORIATZA
**Oihana eta Haizea
Arana**
Urriaren 12an,
6 urte. Zorionak,
aitatxo eta amatxo-
ren partetik.



BERGARA
Aritz Unamuno
Urriaren 13an,
7 urte. Zorionak eta
muxu handi bat,
etxearen partetik.



ARRASATE
Leire Madina Arana
Urriaren 11n. Zorionak amatxo! familia osoa-
ren partez. patxo eta besarkada handi bat.
Argazkia bere alaba izarorekin agertzen da.

ZORIONAK!
Zorion itzazu lagunak
eta senitartekoak
ASTELEHENEKO GOIEN-
KARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia,
eta emaitza ezusteko
ederra!

jaiotakoak



Aritz Setien Sebastian
Eiber > 3,360 kilo. Urriaren 1ean.
Gurasoak: Bea (Eibar) eta Iban (Eibar).
Argazkian, Aritz txikia, amaren beso-
etan.



Aritz Tornay Belategi
Arrasate > 4,550 kilo. Urriaren 2an.
Gurasoak: Esther (Arrasate) eta Josu
(Arrasate). Argazkian, Aritz jaioberria,
amaren besoetan.



Asier Romero Ruiz de Zarate
Aretxabaleta > 3,000 kilo. Urriaren
3an. Gurasoak: Edurne (Aretxabaleta)
eta Juan Luis (Gasteiz). Argazkian,
umea, kumatxoan.



Igor Barela Crespo
Oñati > 3,900 kilo. Urriaren 3an. Gura-
soak: Iruñe (Oñati) eta Matias (Oña-
ti). Argazkian, Igor jaioberria, aita-
ren besoetan.



Ainhoa Busto Muruamendiaraz
Arrasate > 2,800 kilo. Urriaren 5ean.
Gurasoak: Amaia (Arrasate) eta Heri
(Arrasate). Argazkian, Ainhoa jaiobe-
rria, gurasoekin.



Oihan Alberdi Hernandez
Antzuola > 2,800 kilo. Urriaren 6an.
Gurasoak: Anabel (Bergara) eta Mikel
(Bergara). Argazkian, Oihan jaiobe-
rria, amarekin.



Lide Manso Zulueta
Antzuola > 2,750 kilo. Urriaren 7an.
Gurasoak: Arantzazu (Oñati) eta Iker
(Antzuola). Argazkian, Lide jaioberria,
kuman lo.

BABESLEA

**IKUSI
MAKUSI**

Umeen
paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Mixel Ducau > Musikaria

"Errobirekin esaten ziguten eroak ginela"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Mixel Ducau baionarra umetatik dabil musika jotzen. Errobi taldearen sortzaileetako bat izan zen, eta hainbat musikarirekin 50 bat diskotan esku hartu izan du. Gaur egun, Bidaia izeneko proiektua dauka Caroline Philips emaztearekin.

Noiz izan zenuen gitarra bat lehenengo aldiz eskutan?

Umetan, saxoa ikasten hasi nintzen, eta gerora, Lizeoan, lagun batzuekin, n talde bat egin genuen, 12-13 urterekin. Horietako batek gitarra bat zuen, eta instrumentu horrekin maiteminduta gelditu nintzen. Ordurako sei urte eginak nituen kontserbatorioan, eta ulertzen nuen musika. Segidan, gitarra bat eskuratu eta ordutik ez diot utzi praktikatzeari, metodo eta irakasle barik. 15-16 urterekin seriooki hartu nuen gitarra jotzea, eta gaur arte.

Zer helburu jarri zenituzten Anje Duhaldek eta biok Errobi sortzerakoan?

Euskaraz zerbait modernoa egin gura genuen, eta folka eta rocka batu nahi genituen.

Batzuek esaten ziguten ea zertan genbiltzan, ez genuela euskal musika errespetatzen, erotuta geundela... Jakina, asko-rendako oso berria zen euskal musika gitarra elektrikoarekin, bateriarekin...

Hala ere, jendetza handia izan zenuten emanaldietan, ezta?

Bai, arrakasta izugarria izan zen. Ez genuen halakorik espero. Gogoan ditut Hegoaldeko emanaldiak... halako jendetza gu ikusten! Hitzak gogorak ziren, sasoi oso beroa, pasio handia zegoen.

TEST-A

Herria: Baiona. **Adina:** 55 urte. **Ikasketak:** Aparejadorea. **Zaletasunak:** Brikolajea, jatetxeetara joatea eta naturan ibiltzea. **50 disko baino gehiagotan ageri da zure izena. Zein da disko kuttunena?** Ez dakit. Oso berezia izan da, adibidez, Iñaki Eizmendirekin, Txomin Artolarekin, Erramun Martikorenarekin edo Pantxo eta Peiorekin lan egitea. **Egin duzue inoiz aparejadore lanik?** Behin, bizi garen etxea eraikitzen (barreak).

Beste talde askoren artean, Orquesta Mondragonen ere ibili zinen musikari?

Bai. 80ko hamarkada hasieran, Jean Marie Ecay nire laguna zen Orquesta Mondragoneko gitarra-jolea. Hala, bigarren gitarra eta saxoa joko zuen norbait behar zutela entzutean, niri deitu zidaten. Abentura bat izan zen. Sex, drugs and rock-and-roll-en garaia zen. Esperientzia eroa, baina interesgarria eta aberatsa. Gurrutxaga oso berezia zen, *diva* bat, baina talde oso ona genuen.

Alabak Landroverrean, Pintto Pinto, Txorromorro... kantuak ondo ezagutuko ditu, ezta?

Bai, jakina. Makina bat urte igaro dira *Xixupika* haurrendako kantuen bilduma egin genuela, eta ume euskaldun askok bezala gureak ere ikasi zituen.

Gustuko duzu haurrendako lan egitea?


Bai, beti da aberasgarria. Une honetan, gainera, arazoak dituzten nerabeekin musikaterapia egiten dihardut.



MUSIKA, LANBIDE Aparejadore ikasketak ditu, baina musika du lanbide. I.B.

www.goiena.net

Etxebizitza errentan hartzeko gaur egun dauden aukerekin gustura zaude?



biharamuna

Oier Bolibar

Energia berriztagarriak

zenak dioen bezala, agortu ezin diren baliabide naturaletatik lortzen ditugun energia hauek etorkizuneko energia iturri ditugu.

Aldaketa bat behar dugula nabaria da, gure, eta gure ondorengo etorkizuna bermatzeko, gaur egunera arte eraman dugun gizarte-erduak geroaldi gabeko amaiera ziur batera baikaramatza.

Energia berriztagarriek inbertsioa eskatzen dituzte, eta gizartearen konpromisoa. Batzuek energia nuklearren alde egingo dute apustu, baina demonstratua dago, hondakinen tratamenduen kostua kontutan hartuta, ez dela errentagarria.



Beste batzuek energia berriztagarriak ez direla ekonomikoki kompetitiboak esango digute, nahiz eta energia fosilen salneurrien gorakadak ez duen etenik.

Datuek diote posible dela soilik energia berriztagarriek sorturiko gizarte eredu batzara salto egitea, gure eguneroko bizitzan aldaketa nabaririk eragin gabe. Mentalitate aldaketa kontu bat besterik ez da.

Herriaren eskuetan dago, bada, etorkizunerako zein eredu nahi duen erabakitzea, Euskal Herri berriztagarria edo Espainia nuklear eta agortua.

eguraldia



MINIMOA +14 MAXIMOA +23

Lanbro eta lainoarekin hasiko dugu eguna, baina gero, egun atsegina izango dugu. Iluntzean berriz tantaren bat jausi daiteke.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, GIPE hutsunea **KODEA**
ABESTIAK: Bidali, GIPP hutsunea **KODEA**
LOGOAK: Bidali, GIPL hutsunea **KODEA**
JOKOAK: Bidali, GIPJ hutsunea **KODEA**

5767 zenbakira SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

ABESTIAK POLIFONIKOAK (2 sms) Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Pop-Rock
 Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
 Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**
 Amore amore (Kandidakoko benta) | **AMORE**
 Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | **ASKATA**
 Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
 Bi Minutero (Hertzainak) | **BIMINU**
 Dub manifest (Fermín Muguruza) | **DUB**
 Egunerero (Hertzainak) | **EGUNERO**
 EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**
 Etsi dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**
 Enzaidado de la muerte (RIP) | **ENAMO**
 Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**
 Etorkizuna (Etsaiak) | **ETORKI**
 Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**
 Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

Hator Bel-Air (Bide Ertean) | **BELAIR**
 Haizea (Ken7) | **HAIZEA**
 Hegal egiten (Itziz) | **HEGAL**
 Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**
 Ilargia (Ken7) | **KEN**
 Inperuen ate joka (Gatibu) | **INPER**
 Jokin Urairi Hitzak (Bide Ertean) | **JOKIN**
 Kaixo (Urzi) | **KAIKO**
 Lau Teilatu (Itziz) | **ITOIZLAU**
 Laztana (Lätzen) | **LAZTA**
 Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**
 Loretxoa (EXKXU) | **LORE**
 Mareta Gora (Itziz) | **MARETA**
 Musturrek sartunde (Gatibu) | **MUSTURREK**
 Nicaragua (Kortatu) | **NICA**

No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**
 Salve (La Polla) | **SALVE**
 Sarrri Sarrri (Kortatu) | **SARRI**
 Sorginen Iezean (Exkixu) | **SORGIN**
 Txabxo (Zarama) | **TXATXOI**
 Txus (La Polla) | **TXUS**

Folk
 Arratsalde honetan (Sorrain Baki) | **SOROTAN**
 Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**
 Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
 Bizkaia Maitte (Berriro Larrendu) | **BIZKAIA**
 Eperrak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
 Euskal Herrian Euskaraz (Osakem) | **EUSKAL**
 Euskaldun berriaren balada (Osakem) | **EUSKALDUN**

Ez da posible (Ruper Ordorika) | **POSIBLE**
 Furra Furra (Osakem) | **FURRA**
 Galziera noa (Osakem) | **GALZIARA**
 Gemikako Arbola (Gortzel Mendibil) | **GERNIKA1**
 Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**
 Izarren hautsa (Xabier Lete) | **IZARREN**
 Lepoan hartu ta (Pantxo/Petzi) | **LEPOAN**
 Manelaren zai (Sorrain Baki) | **MARINE**
 Nere herriko neska baki (B.Larrendu) | **NERE**
 Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | **NON**
 Oi! Ama Euskal Herria (B.Larrendu) | **OIAMA**
 Tirauki (Osakem) | **TIRAI**
 Txabxamatzalindatu (Mikel Urdangarin) | **TXATXA**
 Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
 Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | **ZAINDU**

ZINEMA **AIZKORAK**
GLOBUAK **EGUZKILORE3**
ZORIO **EGUZKILORE3**
NIREKIN **SORGINGA**

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiritu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea. GPS sistema aktibatzeke, jarraitze zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitseria bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sisteman alda ematea doan dira.
 * Euskalhe: deitu 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123ra. / * Movistar: deitu 609ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin dituzkegu abesti eta logoak. Webgune honetan kalieratu eta erabiltzaileak eskura dazutela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN ➔ www.smsoinu.com